


Kristau koptoak, errebeldeak eta Anaia Musulmanak

Nork bere egia Egipton





- **Auzolan esperientziak** Elkarlanean oinarritutako ekimenak bi astean behin ARGIA-n
- **Katalunia** 400 kilometroko giza katea independentziaren alde
- **Andoni Iturrioz** «Herriko Etxeek kultur maila oso apala dute, ez bakarrik euskal kulturari dagokionez» ● **Jose Enrike Urrutia Capeau** Kubako Independentzia gerran murgildu da *Weylerren itzala* ipuin liburuan

www.argia.com/multimedia




Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.





Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.





Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.



Azaleko argazkia:
BOSTOK PHOTO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko irailaren 8a, 2.381. zenbakia

ASTEKO GAIA

EGIPTO Jainkoak eta arkeologoen dakite egia.

ANDONI LUBAKI / 4

PERTSONAIA

ANDONI ITURRIOZ: «Kultura eguneroko bizitza da».

SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Ondare historikoa berpiztuz.

MARTIN VICIOSO / 15

HIGGS-EN BOSOA Gauzek masa izatearen «erruduna».

OIER LAKUNTZA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

EGUNEROKO MIKROIRALTZAK JUNE FERNANDEZ / 18

ALDARRIKAPENETIK ERREALITERA JAKES BORTAIRU / 20

NAFARROAKO ELTZEA KIKE DIEZ DE ULZURRUN / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Erlezainarena. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Igeldoko erreferendumari jarriak.

IMANOL LIZARAZU / 21

ERDIKO KAIERA

JOSE ENRIKE URRUTIA CAPEAU: «Weyler bezalakorik guti

Kubako Independentzia gerran». MIEL A. ELUSTONDO / 22

IHESI DULANTZ-LIZARRA (NAFARROA) Paisaien muga.

PATXI LARRION / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA / 30

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Dantza maitatzeko garaia Miarritzen. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

KATALUNIA Bide katalana independentziarantz.

URKO APAOLAZA AVILA / 37

FRANTZIA Pobrezia-tasa gora doan arren, aberatsak inoiz

baino aberatsago. LANDER ARRETXEIA / 41

EUSKARA ADMINISTRAZIOAN Ingelesaren ibilbideari begira.

MIEL A. ELUSTONDO / 42

JEAN HARITSCHELHAR Euskalduna sortzez, frantsesa legez,

europarra ametsaz. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Fukushimai zezioa tankeka dario eta egia

tantaka. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

EGIPTO

Jainkoak eta arkeologoeak dakite egia

Inoiz baino zatituago ageri da Egiptoko mapa sozial eta politikoa. Konpenezina dirudien amildegia du aurrean gizarteak. Niloko herriaren erorketa hori saihesteko zubia nork eraikiko duen eta nola, inork ez daki.

| ANDONI LUBAKI |

Argazkiak: Bostok Photo



“HEMEN ELKARTZEN ZEN, gu gauden plaza berean, Nagui Mahfuz idazlea. Hemen egiten zuten berba garai haietako intelektualek, literaturaz, poesiaz, politikaz. Gutxi ordea jainkoaz. Nagui Mahfuzi estremista batek eraso egin zion eta hiltzeko zorian egon zen”, dio Mahmud Hamza ideologo tamarroud-ak Groppi kafetegian. Tamarroud hitzak “errebelde” esan nahi du arabieraz. Hala izendatzen dute euren burua 2011. urtean Mubarak lehendakaria boteretik kentzea lortu zuten protestetan aritutakoek. Mahmud Hamza tamarroud mugimenduaren ideologoetako bat dugu. “Neu izan nintzen, protestak hasi eta Tahrir plazan lehenbiziko kanpamentua altxatu zuena. Nazio oso bat mugiarazi nuen ekintza horrekin” dio harro, sisha tabakoari zupada sakonak ematen dizkion bitartean. Emaztea du ondoan, belorik gabe doan emakume egiptoarra. “Nire emazteak asko sufritu

du nire burugogorkeria. Ezin izango diot sekula eskertu nigmatik egin duena. Baina guretzat borroka ez da amaitu. Mursi presidentea boteretik kendu dugu, baina bere jarraitzaile biolentoak oraindik kalean daude. Egiptok izan duen ondareari traizio egin diote”, gehitu du Hamzak, haserre. “Ikusiko duzu nola hemendik denbora gutxira egia jakingo dugun. Arazo honen guztiazen egia”. Galdetu diot egia zein den, bere ustetan. Denbora pixka bat hartu du, shishako tututik arnasa hartu bitartean. Kea gorantz bota du. “Egia? Amerikako Estatu Batuek islamista biolentoak suspertu nahi dituztela, gure lurraldea desorekatzeko. Beti, toki guztietan, amerikarrak amerikar direnetik egin duten moduan. Mao Tse Tung-ek famatu egingo zuen ‘banandu itzazu eta irabaziko duzu’ esaldia, baina amerikarrek erabili dute ongien. Kanpoko esku-sartzeen errudun ere senti arazi nahi gaituzte. Zein eta gu, egiptoarrak? Doazela popatik hartzera! Bai Europar Batasuna eta baita amerikarrak ere. Eraman ditzatela euren etxetara islamista nazkante hauek. Ea gustatzen zaizen bizilagun izatea. Guri egiptoarroi behintzat ez zaigu gustatzen”. Zerbitzaria etorri da. Kontua ekarri eta Hamzak berak ordainduko duela esan dit. “Orain gu egiten ari garen hau, kalean gau partean zer edo zer edan, ezingo litzateke egin Anaia Musulmanak boterean egongo balira. Haiek akabatu edo psikiatrikoetara sartu beharko ditugu salafista nazkante horiek”. Elkarrizketa amaitutzat jo du Mahmud Hamzak. “Orain joan zaitzez lanera. Idatzi, baina konta ezazu egia”. Agur hotz bat eta bakoitza bere aldetik alden du da Groppi kafetegitik.

Egipto islamista da!

Brahim-ek berekin joateko esan dit. Bizardun agure argal honek eskua hartu eta Anaia Musulmanen gotorleku bihurtu den Rabaa Al Dawiya meskita ingurutik narama. Nora ez dakit ordea. Gizon txiki baten aurrean laga nau eta esertzeko baimena eman dit. “Nahi duzun guztia esango dizut. Egia besterik ez”, dio agureak arabieraz. Brahimek itzultzaile lanak egingo ditu. Mundu osoan zehar bidaia-tutakoa omen da Brahim. “Marinela nintzen eta Kanada, Hego Amerika eta Asiako portuak ondo baino hobeto ezagutzen ditut” esan dit, “egia” besterik esango ez didan agurearen-gana gentozela. “Galde iezaiozu nahi duzuna”. Gizon txikiak esan dit Mohamed Islamy duela izena, Anaia Musulmanekin klandestinitatean lan egin zuela Mubarak garaian. “Pertsona gehien mugitzen duen kofradia gara. Horrek militarrei eta diktadoreei beldurra ematen die. Egiptoar agintariek beti beldurra izan diote herriaren indarrari. Hori saihesteko, onena



Mursi
presidentearen
jarraitzailea,
Egiptoko
bandera
eskuan.



Altzemandu militararen aurkako protestetako argazkiak, Kairon. Ezker-eskuin, ume bat erreztatzen, hainbat emakume Korana irakurtzen, eta Anaia Musulmanak militarrek gerturatu ez daitezzen zaintza lanak egiten.

beraien ustez Anaia Musulmanak kontrolpean, isilduta edukitzea zen. Mubarak boteretik kendu genuenean argi eta garbi gelditu zen egiptoarren gehiengoak Mursi nahi zuela presidentetzat. Herriak behin hitz egingo eta armada etorri zaigu herriaren boza isiltzera. Gaitz guztien errudun egin gaituzte musulmanok. Militar horien atzean Amerikako Estatu Batuak daude. Nahiago dute euren adiskide den diktadore bat herriak aukeraturako presidente bat baino”. Halere kristau koptoak ere badirela esan diot Mohamedi. Islama Egiptora iritsi baino lehenago lurralde hau kristaua zela esan diot, Mahomak islama hedatzen hasi baino lehenagoko erlijioa dela. Haserre erantzun dit: “Hori Estatu Batuek inposatu nahi diguten egia da. Egipto beti izan da musulmana. Koran liburu sakratuak dioenez, islam hitza erabili baino lehenago musulmanak ere bazirela aitortzen du. Islama Korana baino lehenagokoa da. Pertsona, muinean, musulmana da, berak ez badaki ere. Zu zeu musulmana zara, ez dakizun arren! Baina kristau hauek Alari traizio egin diote. Deabrua gurtzen dute euren elizetan. Otoitzak entzun besterik ez dago, ez dira arabieraz ari- tzen. Traidore moduan tratatuko ditugu, Egipto beti izan da islamista, beti! Faraoien garaian ere musulmanak ziren, ez gaurkoak bezala, baina musulmanak”. Gure historia liburuek hori ez diotela esan diot. “Noski, liburu on bakarra Korana baita! Eta zuenean ez duzue Koran askorik irakurtzen”.

“Guretzat borroka ez da amaitu. Mursi presidentea boteretik kendu dugu, baina bere jarraitzaile biolentoak oraindik kalean daude. Egiptok izan duen ondareari traizio egin diote”

Mahmud Hamza
tamarroud mugimenduaren ideologoa

Kristau koptoak ez gaitu inork nahi

Mina gazte kristau koptoa da. Masperoko gazteen bozeramaile eta koordinatzailea. Berekin ere Groppi kafetegian egin dugu hitzordua. Ramadan garaia da, baina halere berak, egun argiz, ura edango duela esan dio zerbitzariari. “Gizartean azkenaldian dugun arazoetako bat zera da: mundu guztiak uste duela Egipto musulmana dela. Lehenago beti galdetzen zizuten kristaua ala musulmana zinen. Inor ez zen horregatik larritzen edo haserretzen. Gaur ez da horrela gertatzen. Koptoak gure burua babesteko ezin dugu Kairoko auzo batzuetara sartu. Biolentzia

handia pairatzen du gure komunitateak. Begira bestela” dio, bere sakelakoan elizak sutan agertzen diren argazkiak erakusten dizkidan bitartean. “Anaia Musulmanek bidalitako terroristak izan dira. Anaia Musulmanen artean salafista asko dago, estremista hutsak. Gu akabatzea besterik ez dute buruan. Gobernu berrian parte hartzeagatik traidoreak garela diote. Baina guk, urteetan izan dugun aukera on bakarrari

heldu behar diogu. Ez dugu lehengo egoerara bueltatu nahi, ez dugu bigarren mailako biztanle izan nahi”. Mursi presidentek kristau komunitateari zer egin dion galdetu diot. Zorrotz erantzun dit: “Ez zuen gureganako errespeturik batere adierazi. Egiptoren izaera erlijioso anitza mantentzea nahi dugu. Ez dut arazorik musulmanekin, nire lagun asko musulmanak dira, estremistekin dut arazoa



eta Mursi estremista bat zen, biolentoak zirikatzuten zituen gure aurka bortizkeria erabili zezaten. Pentsa zenbat eliza erre dituzten, zenbat kristau hil eta apenas inor dagoen krimen horiengatik kartzelan. Berririo diot, gure egoera aldatzeko modu bakarra izan da gobernuan egotea. Ez dut uste gobernu kolpista bat denik, gobernu iraultzaile berri bat baizik. Egipto bere onera ekarriko duen talde indartsu bat. Estremismoez ahazteko garaia da”, azaldu du Minak ur botilari beste trago luze bat eman aurretik. Ondoan ditugun poliziak gerturatu dira. Elkarriketatzen ari naizen mutilari esan diote Ramadan garaian ezin duela urik edan. Berak dio kristaua dela eta poliziek barre egin diote. Aldendu direnean zera esan dit: “Ikusten duzunez oraindik gauza asko dago konpontzeke Egipton. Zergatik etorri dira niri hori esatera? Islamismo erradikalaren ondarea dugu hau. Anaia Musulmanek urteetan egindako lan isilaren erantzuna ikusi duzu orain poliziarekin. Horregatik gaude gobernu iraultzaile honetan negoziaketetan”. Elkarriketa amaitzerakoan, oharra: “Rabaa Al Dawlara bazoaz kontuz ibili. Ez dute bertan kazetaririk nahi”. Eskua eman eta zorte ona opa diogu elkarri. “Emailak bidaliko dizkizut gure egoeraren berri emateko. Zure herrian jendeak egia jakin behar du!”. Taxi bat hartu dut etxerantz. Bidean Anaia Musulmanen manifestazio batekin egin dut topo. Gidaria gelditu behar izan da eta eskuinerantz jo baino lehenago kotxea kolpatu diote manifestari bakan

“Mubarak boteretik kendu genuenean argi eta garbi gelditu zen egiptoarron gehiengoak Mursi nahi zuela presidentetzat. Herriak behin hitz egingo eta armada etorri zaigu herriaren boza siltzera. Gaitz guztien errudun egin gaituzte musulmanok”

**Mohamed Islamy
Anaia Musulmana**

batzuek. Jarrera hori zergatik izan duten galdetu diot Moises deitzen den txoferrari. “Koptoa naiz eta gurutze baten pegatina bat dut atzeko partean. Ez dute nahi islama ez den beste erlijio baten ereserkirik. Baina ni koptoa naiz eta ez naiz ezkutatuko”.

Mubarakekin hobe geunden

Arduratuta nago. Contreras ez dator eta ez dut giltzarik etxean sartzeko. Gaueko ordu biak dira eta bere sakelakoak ez du seinalerik ematen. Aspalditik laguna dudana Narciso Contrerasen Pulitzer saria irabazi du argazkilaritza atalean. Gatazketan iaioa da, eskarmentuko gizona. Hala ere arduratuta nago. Orain dela lau zapabost ordu, Ramses zubian liskarrak zeuden Tamarroud eta Anaia Musulmanen artean. “Harantz noa zer berri dagoen ikustera. Ez dut uste asko atzeratuko naizenik, segituan naiz etxean” adierazi dit azkeneko telefonoz hitz egin dugunean. Bost ordu pasa dira harrez geroztik. Etxeko atabalean dauden bi poliziak nirekin hitz egiten hasi dira. “Ez zaitetz larritu. Zure laguna segituan etorriko da. Hori bai, hobe poliziarekin liskarrik izan ez badu, serioak gara-eta gure lanean. Behar ez den tokian argazkirik atera badu... Ezin da dena kontatu. Egia kontatu behar da! Mubarakekin ez genuen halako liskarrik. Segurtasuna eta lana eman zigun hark. Poliziaren gehiengoak Mubarak bueltatzea nahi dugu, Egiptok beti izan dena izaten jarraitu dezan: nazio handi bat. Eskerrak militarrek eta Al Sissi jeneralak

“Anaia Musulmanen artean salafista asko dago, estremista hutsak. Gu akabatzea besterik ez dute buruan. Gobernu berrian parte hartzeagatik traidoreak garela diote. Baina guk, urteetan izan dugun aukera on bakarrari heldu behar diogu”

Mina,
kristau koptoa



Mina kristau koptoa. Masperoko gazteen bozeramailea da.

Mursi atxilotu duten, bestela ez litzateke gure herriaz deus geratuko” dio Tariq deitzen den polizia gazteak. “Anaia Musulmanekin ez legoke piramiderik ere, ezta hain ezaguna den egiptoar literaturarik ere. Musika ere desagertu egingo litzateke”.

Goizeko lehenbiziko eguzki printzekin batera agertu da Contreras. “Poliziak atxilotu nau, argazkiak kendu nahi zizkidaten atzerriko kazetariak gezurra esaten dugula argudiatuta. Ez dizkidate kendu ordea!”. Eskarmen-tuko gizona da Narciso Contreras mexikarra.

Euliak bezala akabatu

Telefonora deitu didate. Goiza da eta ezustean harrapatu nau Euskal Herrian Brahim agurearen ahotsak. “Euliak bezala akabatzen gaituzte” esan dit. Tiro hotsak entzuten dira telefonoaren bestaldean. Eskegi bezain pronto Mahmud Hamzari deitu nahi izan diot. Ez du telefona hartzen, bai ordea Mina gazte koptoak. “Hasi dira Anaia Musulmanek bidalitako salafistak gure tenpluak erretzen, ordu-bete ere ez da igaro militarrek Rabaa Al Dawiyara sartu direnetik eta gure aurka jo dute jada” dio kezkatuta. Al Sissiren tropak jo eta su ari dira Anaia Musulmanen kanpamentua desegiten. 60 hildako direla esan dute gobernuko iturriek. Aldiz, Azab doktore eta musulman aktibistaren arabera “nire aurrean 120 gorputz ditut. Denak tiroz hildako gizon eta emakumeak”. Berrirori ere zifren jolasa.

Telefonoak jo du, Mahmud Hamza ideologo tamarrouda da, zenbaki ezkutu batetik deika. Nire deia ikusi duela esan dit, baina ez zuela espero ni izatea. Ez du hitz egin nahi, sarraskiaren inguruan ezer ez. Baina “Anaia Musulmanak gezurri hutsak dira” esanez hasi da, ez direla egongo 10 hildako baino gehiago, gehienak poliziaren aldekoak. “Militarrak egia esatera ohituta daude eta azkenean olio

uretan bezala egia azalera irtengo da eta hiltzaileak Anaia Musulmanak direla ikusiko dugu, arma asko baitituzte”.

Demokrazia berrezarri dadila lehenbailehen

Sarraskiaren ondoren etorri dira Europar Batasunaren eta AEBen adierazpenak. “Demokrazia lehenbailehen berrezarri behar da eta gatazka honen guztiaren egia argitu”, adierazi du Obamaren exekutibak prentsara bidalitako oharrean. Arduratuta ageri dira EBko buruzagiak ere Egiptoko egoeraz. “Bakea eta demokrazia berrezartzea nahi genuke” dio Ashton andereak. Denok dakigu, ordea, bai Obamak eta bai Europar Batasunak ere diru-laguntza sendoak eman dizkietela Egiptoko militarrei. Israel ere tartean da. Tabakoa saltzen zidan emakume haren ahotsa etorri zait burura: “Hain gera aberatsak! Aldiz zenbat euli ditugun inguruan dantzatzen. Badugu gasa, petrolioia, Suezeko pasabidea, turismoa, toki estrategikoa gara Israel eta Palestinatik gertu... Horregatik nahi dute Egipto, bai Anaia Musulmanek, bai militarrek, bai Obamak, bai Europak”.

Telefono deiak nonahi. Ezer berririk ez, denak bestea kakaztu nahian. Tartean nazio oso bat kolokan kanpo interesegatik. Mubarak askatuko duten albisteak ere eman da, hasi omen dira haren erretratuak kalean eskegitzen. Mursi kartzelan, “nazioari traizio egiteagatik eta Hamas palestinar taldearekin lanean jarduteagatik”. 600 hildakotik gora islamisten artean. Bakoitzak bere zifrak ahoan, bakoitza bere egia inposatu nahian. Telefono deiak egiten ari naizen bitartean Naguib Mahfuz idazlearen esaldi bat etorri zait burura: “Egipton egia Jainkoak eta arkeologoek bakarrik dakite”. Egiak, baina, denek ihes egiten die Egiptoko gatazkan. ■





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 145 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

**EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean



«Kultura eguneroko bizitza da»

“Ikusten duzu goizian, eguna hasten denian...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Sortu eta 11 hilabetera gurutzatu behar izan zenuten muga.

1946ko apirilean. Nik lurrez zeharkatu nuen, amaren besoetan. Anaiak itsasoz, osaba batekin. Urtebete eman genuen Donibane Lohizunen, baina lan faltan, Puy de Domera mugitu ginen. Aitak espartin tailer bat muntatu zuen bertan. Berak Frantzian lan hori burutzeko baimenik ez zuenez utzitako izen batekin moldatu zuen patentea, baina aferak haize-alde hasi bezain fite kendu zizkioten baimenak, gu Parisera mudatzera behartuz. 4 urte nituen hiriburuan lur hartu genuelarik. Zinezko euskal giroa genuen etxean, etxeko euskaraz mintzo ginen, eta 5 urterekin eskolan hastean ez nekien frantsesez. Frantsesa ikasi eta amak ere trebatu nahi zuenez, amarekin ere frantsesez hasi ginen, eta gure arreba txikiak, hurrek besteak bezalakoa izateko duten temarekin, ez zuen euskararik ikasi. 14 urterekin, nire euskara herdoiltzen hasia zela ohartu eta antidoto gisa *Enzko Deia*-ko euskarazko orrialdeak gogoz ikasten nituen. Beti izan dut argi nongoa naizen.

Eskolan argia izan arren, batxilergoa bukatzean lanean hasteko tratua egin zenuen aitarekin.

Ez ginen miserableak, baina bai pobreak. 14 urterekin estudiantzen jarraitzeko aholkatu zidan maisu batek, eta nire ezina agertzean, beka bat lortzen lagunduko zidala hitzeman. Ahaleginak eta bi egin genituen, baina nazio-tasun frantsesa ukatzearekin batera bukatu zen esperantza. Hala, batxilerra pasa eta mekanografian hasi nintzen lanean. Lau urtez egon nintzen Olivettin, eta han ikusi eta ikasitakoarekin nire enpresa sortu eta aurrera

atera nuen beste lau urtez, Philippsek erosi arte. Orduan, informatika lantegi bat plantan ezarri nahi zuen talde bat ezagutu nuen. Sosik ez genuen, baina CGE-rekin (Compagnie Générale d'Electricite) kontaktuak bai, eta horiei esker GSI enpresa sortu genuen. Gu gutxiengoan ginenez, CGEk izendatzen zigun buruzagia, eta Georges Besse eta Edouard Balladur ospetsuak izan genituen buru. Enpresa ongi ari zen, pixkanaka pixkanaka handitzen, eta 800 langilera iritsi ginenean, denon artean erosi genuen. Txitean pitean, 5.000 langilera arribatu ginen, eta azken zortzi urteetan ni izan nintzen buru. Langileak, alta, paperean aberatsak zirela ohartu ziren eta diru hori berreskuratu nahi izan zuten. Nik zain egoteko errepikatzen nien, laster sartuko ginela burtsan, eta dirua berreskura-

NORTASUN AGIRIA

Andoni Iturrioz 1945eko ekainean sortu zen Oiartzunen. 11 hilabeterekin amaren besoetan muga pasa eta 4 urterekin iritsi zen Parisera. Oinarrizko ikasketak bertan egin, lan-munduan sartu, eta GSI enpresa informatikoaren sorreran parte hartu zuen; berantago horko buru izan zen. 60 urterekin erretiroa hartu, Euskal Herrira itzuli eta Senpereko Larraldea etxea zaharberritu eta kulturagune bihurtu zuen. Horretaz gain, memoria historikoa lantzen duten Lapurdi 1609 eta Jaurzarrea elkarteetako kide eta eragile sutsua da, eta preso ohiak laguntzeko bokazioa duen Harrera elkarteo lehendakaria. Bere aitaren heriotzean, aitak idatzitako bi koaderno jaso zituen, eta bertan ageri zirenak baieztatu ondoren *Manuel Iturrioz, borrokalaria baten bizipenak* liburu harrigarrian argitaratu ziren. Senperen bizi da egun.



ANDONI ITURRIOZ

tzeaz gain, gure enpresaren jabe izaten segituko genuela. Baina ez, batzar orokor batean saltzeko erabakia hartu zen, eta pena handiz, baina etsi behar izan nuen.

Nola bizi izan zenuen hura?

Biziki gaizki, desesperatuta. Ez genuen enpresa sosak irabazteko egin, askatasuna lortu, bezeroei zerbitzu ona eskaini eta gure artean duin bizi ahal izateko baizik. Gainera, 5.000 langile izan arren, oso deszentralizatuak geunden, eta bakoitza zen bere buruaren nagusi. Nik garbi neukan europarrei salduz gero, laster etorriko zela fusioa eta langile andana geldituko zela kanpogan. Hala, lehendik ezagutzen nituen New Yorkeko judu batzuekin hasi ginen tratuan, eta beraiek erosi zuten. Bost urtez buruzagitzan jarraitzeko eskaria egin zidaten, eta baietz erantzun nien gauzak nire modura egiten uzteko baldintzarekin. Kontratu bat sinarazi nahi zidaten, baina nik ezetz, ongi portatzen baziren ez zela arazorik egongo argudiatuz. Zortzi urtez segi nuen, aski ongi, baina ordurako enpresa ez zen gurea, eta ez zen gauza bera. Gainera, 60 urte beterik, 42 lanean iragan ondoren, gogo handia nuen Euskal Herrira itzultzeko.

Ordurako buruan zenuen Larralde bezalako kulturagune bizi baten proiektua?

Bai zera! Ene anaiaren emaztearen familia bizi zen Larraldean, eta karanbola batzuen ondorioz erosi nuen, zertarako baliatuko nuen jakin gabe. Ezer baino lehen, etxea lehengo eran berritzea pentsatu nuen, eta horretan ibili ginen buru belarri. Hori eginik, museo baten ideia otu zitzaidan, baita baserriko tresnak bildu ere, baina pare bat museo bisitatu eta “museoak geldi zaudek, hilda!” nioen nire baitan. Hala, batekin eta bestearekin hizketan hasi, eta Iparraldeko bertso

elkartea egoitza bila zebilela jakin nuen, eta gogotik egin nien Larraldean lekua. Gerora, Gorritik zur errearekin eginiko eskulturen erakusketa bat muntatu genuen, Basterretxeak bere hondar-alea jarri nahi izan zuen, Zumetak ere... eta inongo helbururik gabe hasi zenak bere famatxoa lortu du. Egun, Euskal Herrian Euskaraz, Seaskako Integrazio Batzordea eta Lapurdi 1609 elkarteek ere bertan dute egoitza, eta beti bada zerbait. Pentsa, batzuetan nik ere ez dakit zer baden!

“Nik ez dut sosik nahi, nahiago dut nire askatasuna atxiki, eta pentsatzen dudanaren partez pentsatzen duguna egin”

Ez duzu erakunde publikoek utzitako hutsuneak estaltzen ari zaren irudipenik?

Herriko etxeek kultur maila oso apala dute, ez bakarrik euskal kulturari dagokionez, oro har. Ikusten duzu Senpere sarreraren ezarri duten txistera erraldoi hori eta... ufa! Sosa behar zuen hemengo

artista biziki on batek egin du. Aldez eta moldez ikuspegi artistiko bat proposatzen saiatu zen, baina ez, Herriko Etxeak txistera bat bere horretan baizik ez zuen nahi. Artistari berari artea zenentz galdetu eta dekorazioa zela erantzun zidan. Niretzat Walt Disney da. Alabaina, nik egiten dudana ez dut Herriko Etxearentzat egiten, niretzat baizik, euskal kulturarentzat. Laguntzeko prest badaude, mintzatuko gara, baina nik ez dut sosik nahi, nahiago dut nire askatasuna atxiki, eta pentsatzen dudanaren partez pentsatzen duguna egin. Erakunde baten gibeletik fite heldu da politikaria, eta politikariak hauteskundeak irabazteko jendeak zer nahi duen baizik ez du kaskoan. Artistak, aldiz, aitzinetik joan behar du, formazio bat proposatu, bestela hemengo gazteen kultura beti izango da TF1, errugbia eta frantsesa. Nola esplikatzeko duzu frantsesez ez dakien auzoko artzainaren semeak euskaraz ez jakitea? Jendeak euskal kultura zer den jakin behar du, bere historia, izaera... Hemengoek ez dute Atxaga ezagutzen, ber-



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



tsolariak oraintsu arte espainolak zirela zioten... Ikusi duzu nolako etxeak egiten dituzten hemen? Dena da *copier colle*! Euskal arkitektura hori dela sinetsita auzapezak arauak jartzen ditu, eta moldetik jalgitzen den oro dago debekatuta. Hori Walt Disney da! Hor ohartzen zara Senpereko auzapezaren euskal kulturaren ideia Pierre Loti, Le Basque Bondissant eta gisako txorakerietara mugatzen dela. Esaterako, artzainen historia ez du ezagutzen. Hemengo artzainek aldiz badakite euren kultura zein den, ez dakitena da euren kultura dela. Lotsatu ere egiten dira, pentsa! Kultura eguneroko bizitza da, behin ere erabat ikasten ez duzuna, eta hori jakinda soilik ikasi dezakezuna. Horregatik diot Larralde tresna bat dela, ontzi bat, baina kultura bertan aurrera eta atzera dabiltzanek egiten dutela.

Historian eta memorian barna aurrera eta atzera ere bazabiltza.

Euskal Herri ofizialik ez denez, gure historia besteen ahotik jaso dugu eta egiak gorde dizkigute. Senperen etengabe aipatzen zuten sorginen gaztelua, etengabe erakusten beltzez jantzitako emazte bat erratz baten gainean hegan. Hori bai, honetaz eta hartaz galdezka hasi eta denak behera begira! Hala, talde bat bildu eta 1609ko gertakariak lantzen hasi ginen. Unibertsitateko jendeari ikerketak agindu genizkion, mintzaldiak antolatu genituen, Iguzki-Lore antzerkia plantan eman... Gure egiak hedatzeaz gain, jendearekin egon eta mintzatzeko



parada izan zen, gure historiaren jabe izatekoa. Handik gutxira ezagutu nuen Xabi Otero, eta hark ere gauza bera zioen, gure historia berreskuratu behar genuela. Argitaratuak zituen obra andanari esker arlo askotako adituak ezagutzen zituen, eta zinez gertatu zena ikerrarazi eta mintzaldi eta liburuetan zabaltzeko xedez sortu genuen Jauzarrea elkarte. Historia ofiziala hautsi nahi dugu, jendea eskolan ikasitakoa zalantzan jartzera eramanez, bestela sekulako astakeriak egiten dira. Adibidez, 200 urte beteko dira Urdazuriko gudua izan zela eta gudaren parodia antzeztekoak dira. Hori da gure historia? Ez dakigu soldadu frantsesak piztia ankerrak bezala portatu zirela hemengo jendearekin? Noiztik ospatzen dira galdutako gerrak? Hemengo jendea zinez gertatu zena kontatu eta zur eta lur gelditzen dira, eta



orduan soilik hasten dira dena dudak jarri eta hariak lotzen. Hortxe dago inurri lan xume horren balioa. Historia benetan gertatu zena baita, ez kontatu digutena.

Zure aita zenak idatzirik *Manuel Iturrioz, borrokari baten bizipenak* liburua ere historia da, beraz.

80 urte zituela aita idazten ikusten nuen, eta zertan ari zen galdetzean, denbora-pasan zebilela ematen zidan arropostu. Aitarekin harreman ona genuen baina errespetu handia ere bai, eta ez nuen galdezka segi. Aita zenduta lehengusu bat etorri zitzaidan aitak makinaz pasatzeko agindu zizkion bi koadernoak eskuan. Harrituta gelditu nintzen, baina barre-nak ez zidan irakurtzen uzten. Nire emazteak gauero leitzen zuen zati bat interesgarria zela komentatuz, eta narrazioak gazteleraz baina elkarrizketak euskaraz zirenez, itzulpena galdegiten zidan. Horrela irakurri nuen. Juan Carlos Jimenez de Aberasturi, Comète sarearen historia idatzi zuena, laguna nuen, eta bere liburuan airean uzten zituen galderen erantzunak aitaren liburuan zeudela kontatu nionean, ikertzeko eskatu zidan. Lau urte pasa nituen, artxiboz artxibo, informazio eta datu oro kontrastatzen eta aitak denak zuzen zeuzkan. XX. mendeko historia kontatzen du, zer egiten zuen haur denboratik hasi eta hil arte, nondik eta nola pasatzen ziren mugalarri lanetan, zenbat pilotarekin, datak, izenak... Dena gogoz eta dena egoki. Bizi zela sekula kontatu ez zidana kontatzen du liburuan. Ni zerbait jakiten saiatzen nintzenean “kontu zaharrak dituk horiek!” hasten zitzaidan marmarka. Hernaniko lagunekin bazkaltzera lagundu nion batean,

AZKEN HITZA

Itzalekoa

Berari buruz baino bere pasioei eta partaide den elkarteei buruz hitz egin nahiko lukeela gaitzatu dit hasi aitzin. Berari buruz gehiegi aritu dela eta oreka neuk topatzeko ohartarazi dit bukaeran. Holakoa da Andoni. Ez dakiena da berari buruz ari denean pasio eta elkarte horiei buruz ari dela, eta elkarte eta pasio horiei buruz hastean berari buruz. Ekintzak ezaugarritzen du pertsona, eta pertsonak ekintza.

Melitón Manzanas garbitzeko gau oso bat egon zela Hernanin iradoki zidan eta hariari tiraka hasterako, “kontu zaharrak dituk horiek!”. Beste behin, Comète sarean sartuta zegoen izeba baten hiletan, nire harridurarako ingelesaren dekorazio bat aipatu zuen apezak. Aitari galdezka joan eta... “kontu zaharrak direla, gizona!”. Pentsa, liburu hori eskuetan hartu arte, ez nekien gure aita Comète sareko konfiantzazko mugalaria zenik ere.

Presoak ere konfiantza behar du espetxetik jalgitzean, eta Harrera elkarteko lehendakaria ere bazara

Euskal Herrian, Irlandan ez bezala, ez dugu oraingoz eztabaidarik izan presoan irteera negoziatzeko. Irlandarrek negoziaketa horren baitan sartu zituzten presoek aske gelditzean beharko zituzten laguntzak. Hemen ez da halakorik, mundu batetik kartzelara sartu zituzten eta kartzelatik beste mundu batera aterako dira. Lehen egunetan dena izaten da festa, ongi-etorria, aureskua, lagunak, poza, baina gero ohartzen gara preso ohi asko zahartuta daudela, eri, familia eta inguruarekin harremanak bakandu zaizkiela... Arazo hori baztertzen duguno kosta behar zaigu herri honetan bakean bizitzen. Ez da alde baten problema bakarrik, denona da, jendarte osoa-rena, eta aurre egiteko denon laguntza behar dugu. Abenduan hasi ginenetik Euskal Herri osoko 1.300 bazkide lortu ditugu eta 3.000ra iritsi nahi genuke. Preso ohiaren arazoak bere herri jiran bideratu behar ditugulakoan gaude, ez egitura zentralizatu batetik, horregatik ari gara ahal bezain leku gehienetako bazkideen xerka. Preso ohi batzuei lana topatu diegu, auto-eskola sare bat ehundu dugu preso ohiak gidabaimena dohainik atera dezan, osasun arloko profesionalekin ere ari gara... Egoera ekonomikoa dena da, baina guri dagokigu diskretuki kasuak banan-banan jarraitu eta soluzionatzea. Ez dugu politikagintzan sartzeko bokaziorik, plano humano eta asistentziala da gurea. Aski ongi hasi gara, ea orain elur bola baten gisan handitzen jarraitzen dugun. Seinale ona litzateke. ■



Ondare historikoa berpiztuz

Bi astean behin, arlo ugaritako auzolan esperientziak ekarriko ditugu ARGIAko orrialdetara, Martin Vicioso eta Lide Hernando kazetarien eskutik. Burdina taldearekin abiatu dugu saila;

Andoaingo eta Leitzarango bailarako ondare historikoa auzolanean berreskuratzeaz arduratzen den taldea. Besteak beste, sastraka eta zuhaitz artean ezkutuan ziren burdinolak, karobiak eta harraskak berriztatu dituzte.

| MARTIN VICIOSO |

DUELA HAMAR URTE elkartu ziren lehen aldiz Burdina taldeko kideak. Leitzarango bailaran, Andoain eta Elduaen artean ostendutako ondare baliotsua dagoela konturatu ziren. Inguruko artzain eta baserritarren laguntzarekin garai bateko karobi, aska eta bestelakoak kokatu eta berreskuratze lanak hasi zituzten. Egun, 80 lagun baino gehiago dira taldean.

Burdinako bultzatzaileetako bat izan den Xabier Arrutik hiru fase bereizi ditu euren lanean. Lehenik eta behin, landa-lana egiten dute: mendira joaten dira berreskuratu beharreko gune gehiagoren bila. Horretarako, inguruan bizi eta lan egiten duten pertsonengana jotzen dute, sastraka artean ezkutatutako harriak non dauden jakiteko. Ondoren, eremua garbitzen dute, karobi eta aska gehienak ehun urte baino gehiagoz gordean egon baitira. Hau da, sakon induskatu behar da haietara iristeko. Bertan dagoena agerian utzita, egoera aztertzearen beharra azpimarratu du Arrutik. Horren arabera, egingo den berreskuratze lana zehazten da. Batzuetan herritarren auzolana ez da nahikoa izaten eta arotzak berreraiki behar izaten du. Kasu horietan, dirulaguntzak adostu behar izaten dituzte.

Lan handia dute egiteko. Izan ere, ingurua oso aberatsa zen burdingintzarako, baliabide naturalak direla eta (harria eta erreka ura). Hala ere, ez dira maiztasun finkoarekin aritzen. Lanaren arabera data zehazten dute, eta ahal dutenak azaltzen dira. Gutxienez hamar hamabost pertsona aritzen dira auzolanean. Adin eta lanbide askotako herritarrek parte hartzen dute, gehienak andoaindarrak, baina baita inguruko herritakoak ere. Ahoz ahoko estrategiari eta herrian egiten dituzten batzarrei esker lortu dute taldea zabaltzea. Dena



den, nabarmendu dute oraindik ere askori kosta egiten zaiola halako ekimenetan parte hartzea.

Finantzazioa beharrezko

Taldea ekonomikoki baldintzatuta dago. Andoaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzei esker ordaintzen dituzte tresneria, autoen mantenua, arotz lana eta kideen lan-aseguruak. Beste herri batzuetan ere lan egiteko eskatu diete, baina kostuei aurre egin ahal izateko bertako erakundeek laguntza beharko lukete. Horregatik, gehienbat Andoainen eta Leitzarango

bailaran aritu dira orain arte.

Burdina taldekoek argi dute ondare historikoa mantentzearen garrantzia. Arbasoen ohiturak eta bizimoduak ulertzen laguntzen du. Arrutik adibide argigarria jarri du: berreskuratzen dituzten karobi, harraska eta burdinola asko modu berean eraiki ziren, auzolanean. Historiak irakasten du elkarlanari esker eguneroko beharrak ase daitezkeela, eta gaur egun ere balio horiek berreskuratzea posible dela. ■



HIGGS-EN BOSIOIA


Gauzek masa izatearen “erruduna”

Higgsen bosoiaren existentzia lehenengoz proposatu zuten Peter Higgs eta François Englert zientzialariei eman diote aurtengo Asturiasko Printzea saria, zientziaren arloan. Aitzakia hori hartuta, eta partikulen fisika gure zentzumenetatik harago doan gaia izan arren, Higgsen bosioia zer den azaltzen ahaleginduko gara.

| OIER LAKUNTZA |

HIGGS-EN BOSOIAREN AURKIKUNTZAK frogatuko luke partikulen fisikaren teoria nagusia: eredu estandarra. Materiaren osaketa eta haren osagaien arteko indar eta elkarrekintza gehienak azaltzen ditu teoria horrek, naturaren funtzionamendu orokorra, alegia. Antzinatik landutako gaia da materiaren egiturarena. Greziar filosofoek jadanik materiaren jarraikortasunaz eztabaidatu zuten, hots, materia infinituki zatigarria ote den, edo zatitu ahala uneraren batean gehiago zatitu ezin daitekeen osagaien batera iritsiko ote ginatkeen. Hala, Demokrito izan zen atomo hitza lehenengoz aipatu zuena. Atomo hitzak zatitu ezin daitekeena esan nahi du grezieraz, eta beraz, Demokritok materia zatitu ezin daitezkeen osagaiez, atomoz, osaturik zegoela defendatu zuen.

Atomoen inguruko lehen teoria zientifikoa XVIII. mendearen bukaeran proposatu zen. Gerora, elektroiaren aurkikuntzarekin, atomoaren barruan karga positibo eta negatiboa daudela ondorioztatu zuten. Karga positiboa nukleoan pilatzen da (protoietan) eta negatiboa nukleoaren inguruan biraka ari diren elektroiei dagokie. Erabat zuzena ez bada ere, hurbilketa bat eginez atomoak eguzki sistemaren itxura duela esan daiteke. Dena den, tamaina izugarri txikiez ari gara. Ideia bat egiteko, atomo baten tamaina armstrong baten ingurukoa da, hau da, milimetro bat baino 10 milioi aldiz txikiagoa. Kontuan hartu beharreko beste gauza bat da materia ia hutsik dagoela. Izan ere, elektroiak nukleotik oso urrun daude biraka. Alderaketa bat egitearren, nukleoak milimetro bateko tamaina izango balu, elektroiak hamar metrora egongo lirатеke. Eta era berean, atomoak futbol zelai baten tamaina izango balu, nukleoak zelai erdian dagoen atorra baten botoiaren tamaina leukake.



Higgsen bosoiak utzitako arrastoaren itxura hipotetikoa, CERNen simulaturiko talkan lortua.

Badirudi elektroia oinarritzko partikula edo partikula elemental bat dela, ez baita bere barne egiturarik ezagutzen. Aldiz, atomoaren nukleoa osatzen duten protoi eta neutroiak beste oinarritzko partikula batzuen konbinazioz osaturik daude, quark-ak. Hain zuzen ere, egitura hori azaltzen ahalegintzen da partikulen fisika. Honetan guztian aintzat hartu behar da Einsteinen erlatibitate orokorraren teoriak adierazten duen gisan, energia eta masa elkartrukagarriak direla ($E = mc^2$ formula famatua). Hala, beharrezkoa da, masa-

rik izan ez arren, energia badaukaten partikula ere kontuan hartzea.

Oinarrizko partikulak

Partikulen fisikaren teoria nagusiak, eredu estandarrak, materiaren osaketa eta materia horien arteko elkarrekintzak oinarrizko partikulen bidez azaltzen ditu. Labur esanda, bi partikula mota nagusi daude, fermioiak, materiaren osagaiak, eta bosoiak, elkarrekintzen erantzuleak. Bi fermioik elkarrekintza dutenean, elkarrekintza hori bosoi baten transferentzia bidez gertatzen da. Esate baterako, material bat eguzkitan berotzen denean, ezaugarri jakin bateko fotoi batzuk absorbitzen dituelako da. Hala, fotoiak bosoi mota bat dira. Era berean, unibertsoa indar mota bakoitzari bere bosoi dagokio. Lau dira indar horiek: grabitazioa, elkarrekintza elektromagnetikoa, elkarrekintza nuklear sendoa eta elkarrekintza nuklear ahula.

Partikula elemental mota bakoitzak karga jakin bat dauka, positiboa, negatiboa edo ezer ez. Aldiz, teoria horren arabera, partikula hauek berez ez lukete masarik izan behar, ez lukete pisatu behar, bestela egindako kalkuluak ez bailukete zentzurik izango. Teoria horrek dioenez, masa edo pisu hori Higgsen eremu batekin elkarrekintza bat izatearen ondorioz lortzen dute; zenbat eta elkarrekintza handiagoa izan, orduan eta pisu handiagoa. Gutxien pisatzen dutenak oso erraz higitzen dira Higgsen eremu horretan, elkarrekintza txikia izaten dutelako. Asko pisatzen dutenak aldiz, gutxi higitzen dira, elkarrekintza handia dutelako.

Konparaketa bat egiteko, pentsa dezagun Higgsen eremu hori itsasoa dela eta bertan fermioi ezberdinak daudela, tamaina ezberdinetako barkuak. Barku txikiak erraz higitzen dira itsasoan, elkarrekintza txikia dutelako urarekin. Handiek ordea, gehiago pisatzen duten heinean elkarrekintza handiagoa dute, gehiago kostatzen zaie higitzea.

Bosoiaren bila

Higgsen eremua existitzen bada, Higgsen bosoi bat existitzen delako da. Beraz, Higgsen bosoi partikula elementala aurkitzeak Higgsen eremu hori existitzen dela baieztatu luke, eta ondorioz, teoria zuzena litzateke. Era horretan azalduko litzateke unibertsoan pisua duten gauzak egotea: elektroiak, atomoak, planetak, izarrak, bizidunak eta gu geu ere bai, noski. Aldiz, bosoiak ez dute Higgsen eremu horrekin elkarrengaitzen, eta beraz, ez dute masarik. Fotoiz osaturik dagoen argiak, esaterako, ez du pisurik.

Higgsen bosoiaren ezaugarriak garrantzitsuenetakoa sortu eta berehala desagertzen dela da. Bere bizi-denbora segundo bat baino mila trilioi aldiz txikiagoa da eta horregatik ezinezkoa da zuzenean hautematea. Desagertzen denean baina, beste partikula elemental batzuk ematen ditu, eta horiek aztertuz jakin daiteke Higgsen bosoi hori uneraren batean existitu den ala ez.

Ikerketa hauetan probabilitate balioak eman ohi dira. Izan ere, gerta daiteke Higgsen bosoiaren desintegrazioetik sortu eta zientzialariek igarri behar litzatekeen beste partikula elemental horiek beste perturbazio baten ondorioz sortuak izatea, eta hortaz, beharrezkoa da aurkikuntzaren probabilitate maila hori zehaztea.

Teoria hau 1970. urte inguruan proposatu zen eta 2012. urtera arte ezinezkoa izan zen Higgsen bosoi aurkitzea. Genevako CERN zentroko LHC azeleragailuan hasi ziren esperimentu erabakigarria egiten 2008an, eta 2012an esan ahal izan zuten ziurtasun handiz Higgsen bosoi aurkitu zutela. LHCn, protoiei energia handiz elkarrekin talka eginarazten zaie, argiaren abiaduratik gertu azeleratzen dira eta baldintza horietan Higgsen bosoi sortzen da. Esperimentuaren bitartez, unibertsoaren sorrera azalduko lukeen teoriaren punturik garrantzitsuena frogatu dela baieztatu daiteke. ■



ANDRA MARI
restaurant

Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com





**June
Fernandez**



KAZETARIA

Eguneroko mikroiraultzak

DEPILAZIOA. Bularretakoa. Aluaren usaina. Hilekoaren tabua. Klitoria. Horrelakoei buruz hitz egitea dut gustuko. Egunero emakume izateagatik gure gorputzarekin dugun harremana baldintzatzen duten gaiak plazaratzea ere bade-lako feminismoan aritzea. Askorentzat azaleko gaiak dira, txikikeria burgesak. El Salvadorren bizi banintz, kezka garrantzitsuagoak izango nituzkeela diote, ez El Salvadorreko feministek (eurak ere gorputzari lotutako zapalketen kontra ari baitira), gizon ezkertiar harroputzek baizik. Eurek dakite zeintzuk diren emakumeen egiazko arazoak: erailketak, ablazioa, gatazketan bortxaketak. Geure bizipenei buruz aritzen garenean txoriburu ahoberoak garelara diote.

Baina ez dira eurak –feministok baizik– muturreko indarkeria matxisten kontra dihardutenak. Emakumeen eskubide guztiak defendatzea da feministon xedea, eta borroka horretan argi daukagu eskubide

eskubidearen aldeko berbera: “Feminitatearen aginduak pikutara! Nire gorputza nirea da”.

Modan jarri da Luis Boninoren “mikromatxismo” kontzeptua, eguneroko tratu txarrak identifikatzeko baliogarria. Bikote esparruko genero indarkeria ez da bakarrik jipoia edo iraina, baizik eta mesprezu keinu iraunkorrak, kontrola (telefonoko mezuak begiratzea, esaterako), autoestimua kontrako sastadak: “Lodi zaude”. “Zuk zer jakingo duzu?”. “Ez duzu ezertarako balio”. Indarkeria matxista ez da eraso isolatuen sekuentzia, dominazio prozesu konplexua baizik.

Baina nork neurtzen du zer den mikro eta zer makro? Emakumeok jakin badakigu geure borondatea bortxatzeko era asko daudela, eta gizon batek “leunki” makurrarazten gaituenean askotan zaplazteko batek baino min handiagoa egiten duela. Eta egunero etsipenez bizi ditugun eraso “txikiak” (metroan ipurdia ukitzen digutenean, kalean lizunkeriak esaten dizkigutenean, lanean diskriminatzen gaituztenean...) geure baitan pilatzen direla, batere “mikro” ez den arrastoa utziz.

Mikromatxismoez ari bagara, mikroiraultzekin erantzutea izan daiteke bide posible bat. Gehiegizko ardura da milurteko sistema patriarkala suntsitzea, baina nire esku dago ni, emakume, ahal dudan libreen bizitzea; gizarte sexistaren arauak pixkanaka apurtzea (nire kontraesanak onartuz) eta jabetze prozesu hori beste emakumeekin partekatzea. Gizonen kasuan hori ere izan liteke konpromiso berdinean zalearen isla zintzoa, “matxirulo” jarrerak alde batera uztea, txalorik espero gabe maskulinitatearen pribilegioei uko egitea.

Feminismoan nabaritzen dut gero eta gehiago garelara militantzia zorrotzaren ordeztu zaintza (gurekiko eta gure kideekiko), umorea eta plazera erdigunean jartzen ditugunak. Matxismoaren aurka irtenbide eta mendekurik onena gizaki aske eta zoriontsuak izatea baita. ■

Nork neurtzen du zer den mikro eta zer makro? Emakumeok jakin badakigu gure borondatea bortxatzeko era asko daudela, eta gizon batek “leunki” makurrarazten gaituenean askotan zaplazteko batek baino min handiagoa egiten duela

urraketa larri eta txiki guztiak (urraketa txikirik ba al dago?) lotuta daudela, iturri bera gizarte heteropatriarkal, kapitalista eta arrazista dela, eta hau ezin izango dugula suntsitu bere aurpegi eta ondorio guztiak agerian uzten ez baditugu.

Abortatzeko eskubidea etengabe kolokan dago, gizarte honetan ez dagoelako argi norbera bakarrik dela bere gorputzaren jabe. Depilazioak gai arina dirudi, baina orduan zergatik da hain arraroa emakume bat hanka iletsuekin kaletik ikustea? Erabaki pertsonal bat besterik ez bada, zergatik eragiten ditu erreakzio bortitzak –etxean presioak; lagun taldean txantxak; kalean erasoak–? Mezu politiko bat adierazten duelako, abortatzeko





UDAN ENTZUNA

Espainiarrak?

Biktima



Jakes Bortairu

BATERA PLATAFORMAKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Aldarrikapenetik errealitatera

IPAR EUSKAL HERRIKO ezagupen instituzionalari begira urrats kualitatiboak egin dira 2012ko hasieratik hona, fase honen lorpenak lekuko. Landutako lurralde kolektibitatearen proiektua bera, Ipar Euskal Herriak dituen behar instituzionalak, zor zion ezagupen politikoa eta frantses legediak gaur egun permititzen duenaren arteko sintesi egiten duena. Proiektu horren aldeko adostasun zabala, bai korrante politikoen aldetik, baita eragile sozialen artean ere. Proiektu horren zabaltzeko eta defenditzeko eragile guztiek osatu duten aurrekaririk gabeko koordinaketa. Hots, instituzioaren aldeko borrokak irabazi duen legitimitatea eta sekulan lortu ez zuen indar harremana, instituzio aldarrikapena hipotesia egingarria eta erreala bihurtu duena. Hala ere, ez da nahikoa izan, momentuz bederen, aldaketa eragiteko, ezagupen instituzionalari bidea irekitzeko. Hori guztiaren isla izan dugu ekaina/uztailean Frantziako Senatuan nahiz Legebiltzarrean Iparraldeari buruz izandako emendakinen dantza, Marylise Lebranchu ministroaren hitz hartzeak eta jakobinoen oldartzea.

Pasa den uztailaren 13ko biltzar nagusian Batera plataforma estrategiari buruzko eztabaida ireki du eta sartzeko honetan norabideak finkatu beharko ditu. Mobilizazio dinamikan etenaldia izanen dela pentsa daiteke, heldu den martxoan herri hauteskundeak izanen baiti-

ra. Aldiz, gaia mahai gainean egonen dela dudarik ez da. Alabaina, lurralde ezagupen eta antolamenduarekin zerikusi zuzena duten eztabaidak karrika iskinean ditugu. Herri elkargoen berrantolaketa dugu horietako bat, barnealdean bereziki gori-gorian dena, egun dauden Baxenabarreko hiru elkargoekin (Amikuze, Iholdi-Oztibarre, Garazi-Baigorri) bat ala bi egitea trenkatu beharra baita. Bestalde, departamenduaren hautesbar-

rrutiak diren kantonamenduen mapa goitik behera moldatuko da 2014an, horien kopurua bitan zatituz. Aldaketa eta bateratze horiek indar politikoen arteko orekak aldatzeaz gain, herritarrek ere hunkituko ditu. Beste maila batean 2013rekin Lurralde plan kontratua amaituko da (horren bitartez Ipar Euskal Herriko atal desberdinetako garapen proiektuak Estatuak, Akitaniak eta Departamenduak laguntzen dituzte 6-7 urtez). Normalean 2014/2020ko kontratu berria osatu eta negoziatzekoa da urtea amaitu gabe, baina auzi instituzionala paralizatua

izanez gero, nola gertatuko den ez da batere argi. Azkenik, Gobernuaren deszentralizazio lege proiektuaren beste bi atalak eztabaidatuko dira ondoko hilabeteetan, Ipar Euskal Herriaren lekua berriz ere aipagai bihurtuz. Ageri denez, azken hilabeteetako intentsitate handiko faseak gorabehera berriak ezagutuko ditu luze gabe. Geroak erranen. ■

2014/2020ko kontratu berria osatu eta negoziatzekoa da urtea amaitu gabe, baina auzi instituzionala paralizatua izanez gero, nola gertatuko den ez da batere argi



DANI BLANCO



Edu Zelaia



IDAZLEA

Erlezainarena

HITZ HAUEKIN hasi du haren jarduna erlezainak bospasei familiaren aurrean: “Ni ez naiz gida bat, bertako erlezaina baizik. Hortaz, galderarik egin nahi izanez gero, erlezain bati galdetzen zaion bezala egin, eta ez gida bati bezala. Haserretuko naiz bestela”. Gero, sagar bat horizontalki erdibitu eta sagar orok barrenean gordetzen duten sekretuaren berri eman die bisitariei: barreneko izarra. “Izar honek agerian jartzen du sagarra lore izana dela behinola. Eta, lorea sagar bihurtzeko, erleek ezinbestekoa den lana egiten dute: polena loretik lorera eramana, bizi-hautsa garraiatu”.

“Nahi gabe betetzen dute funtzio hori, ordea”, etorri zaizu gogora. Izan ere, nektarra da erleek loreetan zinez bilatzen duten altxorra, erlezainak azaldu duen eran.

Polinizazioa bidenabarreko gertatzen omen da, erleei hankatxoetan itsatsia gelditzen zaien polenari esker. “Nahi gabe” pentsatu duzu berri. “Istripuz”.

Hasi berria da bisita gidatua. Zure ingurura begiratu duzu orduan: “Zenbat gara hemen nektarraren bila joan eta polena istripuz garraiatu dute-nak?”. ■





Kike Diez de Ulzurrun

♦ ITZULTZAILEA

Nafarroako eltzea

JAKIN-MINAREKIN batera itxaropena ere piztu du CAN auziari buruz Guardia Zibilak emandako azken txostenak. Izan ere, bertzela iduri duen arren, auzia ez dago itxia eta Nafarroan zabalik dirau, hiru lagun baitaude oraindik ere inputaziopean: Miguel Sanz lehendakari ohia, Alvaro Miranda ekonomia kontseilari ohia eta Enrique Maya Iruñeko alkatea. Auziak, egia erran, joan den udaberrian jo zuen goia, bai behinik behin herritar aunitzen esperantzari dagokionez. Hilabete haietan, gainera, Nafarroako eltzeak bor-bor zirakien eta gainezka egin hurren zegoen, edo halaxe ematen zuen, behintzat. UPNko ordezkariak Iruñeko Auzitegira bana-bana epailearen aitzinera deklaratzera agertu ahala berotu zen hura. Eta berotu ere, jakina, Yolanda Barcinaren gobernuak murrizketak ezarri arau. Manifestazioak, elkarretaratzeak, protesta-ekintzak... egunerokogia bezala egin ziren, bai murrizketen eta ustelkeriaren aurka, bai langileen eskubideen alde, bai lantegiak ixtearen eta etxegabeteen aurka, bai hauteskundeak egitearen alde. Barcinari berari aurpegiko irribarrea itzali zitzaion. Horrekin batera, alderdien artean zerabiltzan inkesta batzuen arabera, Nafarroan alimaleko aldaketa gerta zitekeen, hauteskundeak orduantxe egitera, sozialistak erroiztearen ondorioz. Gero, ordea, inkesta baten emaitzek erakutsi zuten sozialistek, indarra galduta ere, ez zutela hainbeste jarleku galduko, eta Izquierda-Ezkerra ez zela igoko. Erran nahi baita, Bilduk, Geroa

Baik eta Izquierda-Ezkerrak ez zutela 26 eginen, eta, hori, jakina, guztiz funtsezkoa da Nafarroa zinezko aldaketa ekartzeko. Bertzela erranik, UPN eta PSN artean 26ra iritsi zitezkeela. Aukera hori izanik, sozialistek, zer erranik ez, betikoari eutsiko diote; gauzak bere horretan iraunarazteari, alegia.

Gero, behin uda hasita, parlamentua itxita, jai giroan, opor usainean, nekeza da nekeza denez plazara ateratzea eta, hori gutxi delakoan, Tuterako txupinazoa lehertzearekin batera, Barcinaren irribarre zabala eta algarak ikusi genituen, Auzitegi Gorenaren erabakiaren karira. Akabo eltzeko uraren borborra.

Tuterako txupinazoa lehertzearekin batera, Barcinaren irribarre zabala eta algarak ikusi genituen, Auzitegi Gorenaren erabakiaren karira. Akabo eltzeko uraren borborra

Egun hartan luze eta zabal mintzatu ondoren, kukutua ibili da udako egun sargaritsuetan, ez da plazaz plaza ibili. Uda, ordea, akitzera doa, eta laster sasitik atera beharko du. Bitartean, Guardia Zibilaren txostena azaleratu da. Ikusteko dago behar adinako indarra ote duen eltzea berriz ere borborka hasteko. ■



BERTSO BERRIAK

Imanol Lizarazu



Igeldoko erreferendumari jarriak

Doinua: Maisu Ruanda zer da

Urtetako helburu da askatasuna herri izan nahian daramakiguna. Geuk eduki nahi dugu erantzunkizuna hargatik egin nahi da erreferenduma ea ulertzen duten herriak nahi duna.

Burujabetza ez da inorentzat kalte aldegingo dugunan beldur al diraute? Ez dugu Donostia izan nahi aparte baizik izan nahi dugu Gipuzkoan parte ta hori errespetatu beharra daukate.

Gure hitzik ez dute onetsi sekula ipiniaz aitzaki zerrenda mardula. Badakite arrazoi asko daukagula. Pentsa Igeldok bide dexente ditula eta seguru gaude lortuko dugula. ■



JOSE ENRIKE URRUTIA CAPEAU



«Weyler bezalakorik guti Kubako Independentzia gerran»

Berezi idazten du Urrutia Capeauk, urruneko munduak ekartzen dizkigu etxera, noiz Ekialdea, noiz Karibea. Berezi idazten du Urrutia Capeauk, etxeok ekartzen dizkigu gogora, Iparraldeko klasikoak eta Barkoxeko eleketa iturri. Kubako Independentzia gerra garaian Espainiaren kapitain nagusi izan zen Weyler militarra harturik dator oraingo liburuan, *Weylerren itzala*.

| MIEL A. ELUSTONDO |
Argazkiak: Zaldi Ero

Zeuk erakutsi zenidan lehenbiziko galdera egiten, Ernst Jungerren hura gogoan. Zein izan duzu *Weylerren itzala* liburu honen xedea?

Lehenbizi, euskaraz idaztea dut helburu. Beti ari naiz horretan. Inon naizelarik, iraganari buruzkoak irakurtzen hasten naiz, zerk ekarri duen herrialde bat oraingo egoerara. Kuban, ezinbestekoa da ariketa, beti ari baitira Marti, Cespedes, Maceo eta gainerakoak aipatzen. Kubara joan den edonork ikusi du, esaterako, Independentzia garaiko gerra guztiz presente dagoela. Hari horietatik tiraka, nahitaezkoa

da irakurtzeari lotzea. Eta irakurtzen hasi eta han non ageri diren heroikotasunak. Espainolek diote Napoleonen kontra egindako borroka guztiz heroikoa izan zela. Bada, are heroikoagoa izan zen kubatarren Independentzia borroka, bitarteko gutxiarekin –eta ingeles laguntzarik gabe, esaterako–, gauza izan baitziren espainolak mendearen hartzeko.

Valeriano Weyler Nicolau (1838-1930) militar espainola hartu duzu ardatz.

Gero etorri zen Weyler. Ni gerrako kronikak

irakurtzen hasi nintzen. Valdez Dominguezen egunkaria, esate baterako. Maximo Gomezen idazkari izan zen, eta, honenbestez, ez du gogoak agintzen diona idazten, dokumentu ofizialak baizik, halako koronel batek igorritako idazkia, bestearen erantzuna... Hainbat testu, beraz. Lau liburuki! Kuban bizi den zenbait adituk ere ez du lan hori ezagutzen! “Hemen gauza asko agertzen dira”, esan zidaten. Jakina, gauza asko agertzen direna, askok nahi baino gehiago! Oraingo gobernua ere ez du lan horren zabalpena laguntzen. Jose Martiren gerrako kronika, edo Maximo Gomezena, erraz aurkituko dituzu. Aldiz, Valdez Dominguezen lana ezkutuan inguratu behar da, eta garesti saltzen da. Edizio txiki bat egin zuten, eta harrezkero ez dute berrargitaratu.

Zergatik?

Kontraesan asko eta handiak ageri direlako. *Weylerren itzala* liburuko ipuinetan batzuk agertzeri jo dut. Arrazismoa, adibidez, arrazakeria indarrean baitzegoen manbisen [Independenziaren alde borrokatu ziren kubatarak, arraza beltzekoak gehienak] garaian. Gerra irabazi zuten, eta bakea galdu. Zergatik? Beste ipuin batean azaltzen saiatu naiz zer gertatu zen beltz arrazako jendearekin.

Espainolen kontrako ezinikusia nabarmen ageri da liburuan.

Ondo da. Ageri dadila! Hala ere, jakin behar zenuke nik ez dudala liburuan neurritik kanpo doan ezer ipini. Alderantziz egin dut. Ez dut jarri, esate baterako, zer nolako triskantzak egin zituzten, zer tortura egin zituzten. Batere ez. Horiek gaingiditzen saiatu naiz, eta gaitz metafisikoago bat agertzen: Weylerren itzala iragaten delarik, loreak zimeltzen direla idatzi dut. Gisa horretakoak.

Historia oinarri, literatura egin duzu.

Nik banituen gerrari buruzko ipuinak. Idazten ari eta gauza berriak bururatzen zitzaizkidan. Batzuetan, erdi idatziak nituelarik, bide berriak zabaltzen zitzaizkidan. Behin, kontzentrazio-eremuen historiari buruzko liburua erosi nuen, ingeles batek egina. Zabaltu dut liburua eta zerrendan lehenengoa, Valeriano Weyler eta Nicolau! Arraioa! Espainola, beraz. Historian jendea akabatzekeko modu “zoragarri” hori asmatu zuena, Weyler! Gero irakurri nuen ingelesek Hegoafrikan berdin egin zutela boerren kontrako gerlan. Dakigunez, “arte” hori hobetuz joan da, errausketa-labeak egin arte. Baina horra Weyler, horra espainolak, zientziaren aitzindari bikainak! Hortik etorri zen liburua Weyler ardatz hartzea. Baina, errana, lehenago ere ipuinak idazten ari nintzen ni. Egia da Weylerren berri izan nuenetik zenbait

ipuin egokitu ere egin ditudala, Weyler lehenbiziko lerroan ipinita.

Zenbat Weyler dira Kubako historian, Independentzia gerrako sasoi horretan?

Weyler bezalakorik, guti. Batzuk izango ziren, baina denak ez dira berdinak.

Krudelkeria ageri da ipuin gehienetan.

Arraioa! Gerla da! Ni ez naiz inon izan, baina hori du gerlak, ezta? Krudelkeria ez beste zer du, bada, gerlak?... Nik ez dakit batere. Horretaz hitz egiteko bertan egon behar da eta badiotsut, ni ez naiz inon izan... Napoleonen gerlen kronikak irakurtzen ditudalarik, ikusten dut paparrean dominak zeramatzatela, eta, lepotik zintzilik, katilu txiki bat. Zertarako zen katilu txiki hori? Ginebra edateko, bataila baino lehen! Gerla beti gerla!

Weylerren gerizpean, euskaldunak ere ageri dituzu zure ipuinetan...

Bai, euskaldun asko, espainolekin batera Kubara joandakoak gehienak. Hala ere, badi-ra zenbait –bikainak, horratik!–, beste aldera



Pelegrinak

“Egina dut hurrengo liburua. *Pelegrinak* du izenburu. Egina dago, marrazki eta guzti, argitaratu zain. Ipuin laburrak dituzu, baina hogeitaka. Ez da aise, hainbeste ikuspegi ezberdin liburu bakarrean baliatzea. Weylerren liburuaz ari gara, bestea labean den bitartean, baina niri bost! Ni ipuinak idazten nabil, besterik gabe. Gero gerokoak. Nire egitekoa idaztea da eta horixe egiten dut. Batzuetan, liburu gisa aterako dira ipuinak, beste batzuk ez dira sekulan publikatuko. Nik, idatzi... Gauzak harremanetan jartzea da artea, ustez ezinezko diren gauzak erakustea. Ideia bat dugula, konkreziara ekartzen dugu idazten dugunean, baina beti bada zer edo zer handiagoa idazten den horren atzean, gaitz metafisiko bat. Horixe da literatura. Diot nik”.

igaro zirenak. Ez dakit inoiz kontatu dizudan. Bada liburu txiki bat, Guerra izeneko manbisak idatzitakoa. Zeren eta, han, manbis askok idatzi egin zituzten beren oroitzak. Guerrak liburuaren amaieran kontatzen duenez, gerran gertaturiko pertsonaiarik interesgarrienetarikoa euskalduna izan zuen. Kontatzen du zelan espainoletatik aldaratu eta batu zitzairen. Morroi ausarta zela zioen. Eta dio erran delako Guerrak: “Gogoratzen naiz, egun batean, kaparrategi batean, biok bakarrik ginela, konpainia oso baten kontra borrokatu behar izan genuela. Euskaldun honek esaten zien aurreko espainolei: ‘Ea potrorik duzuen! Ezetz hona etorri! Denak akabatuko zaituztet, nire umeen izenean!’. Eta espainolek ez zuten erasorik jo! Nik barre egiten nuen, beldurak akabatzen geu geunden-eta, ez espainolak!”. Amaieran, berriz, kontua biribiltzen du: “Nik uste euskaldun hura abenturazale hutsa zela. Egun batean, espainoletara eman zuen bere burua, eta fusilatu egin zuten!”. Eta, Guerraz landa, nire galdera: Nor ote zen euskaldun hura? Menturaz, Goiuri gain honetako baserri bateko semea! Eta zelan jakin?

“Espainolen kontrako ezinikusia? Nik ez dut liburuan neurritik kanpo doan ezer ipini, alderantziz. Ez dut jarri, esaterako, zer nolako triskantzak eta torturak egin zituzten”

Narrazio labur zale zaitugu. Hortik ari zara beti, aurreko lanetan ere, *Izar beltzaren urtea*, *Erge-len nonbrea*, *Assilah-ko eroa*...

Sobera ez nekatzeko, labur! Nobela gutxi irakurtzen dut. *Krimena eta Zigorra*, hura bai, baina nobelak irakurtzeko grinarik ez dut. Bada autore bat, Hugo Ball, dadaismoa sortu zuen mugimendukoa –gero kristau egin zena, bestalde–, zeinak esaten baitu nobelari buruz: “Nobela! Bost orrialde, herrialdea nolakoa den kontatzeko. Amaiera, berriz, luzatu, luzatu eta luzatu egiten da. Ez dut aguantatzen ahal!”. Bada, berdin gertatzen zait niri. Edo hartu *Ana Karenina*. Bost liburuki, Uralak deskribatzeko! Ez adarrik jo! Piztu internet, eta hantxe Ural mendiak ageri! Lehen beharrezkoa izango zen, baina gaur egun, inguruaren ezagutza handi hau dugularik, ez dago dena esan beharrik, zuzenean ideia nagusira joan gaitezke. Nik Borgesek dioena egiten dut.

Eta zer dio Borgesek?

“Nobela bat irakurri dudala pentsatzen dut, eta, gero, haren laburpena idazten dut!”. Kar, kar, kar...

Nobelarik irakurtzen ez, ipuinik ere hain gutxi! Historia eta saiakera liburuak dira zure azterna. Nik istorioa kontatu nahi dut, eta ipuina izan dadila jakin-min, izan dadila zalantza.

Egia osoa kontatzeke...

Egiarik ez dago batere. “Non ez baita halakorik!”, klasikoen moduan esatera. Egia ez dago. Eta egia izan daitekeena leku batean, ez da egia ondokoan. Kar, kar, kar...

Kuban biziko ez bazina, izango zen Weylerren itzala?

Bai zera! Niri gauza asko aldatu zaizkit barnean Kuban bizi naizenetik. Badakit adinaren kontua ere badela. Badakit, halaber, joan den hamabost urteak hemen igaro izan banitu bestela izango zirela gauzak. Kubara joan eta zabaldu egin zait barneko mundua. Margolari batek zioen leihoa interesatzen zitzaioela, zer ikusten ahal zen bertatik. Niri ere hori gertatzen zait. Bestalde, konturatu naiz Kubako, edo beste edonongo, gauzarik hona ekartzea, ulergarri egitea, zein zaila den. Horrek ere lana ematen dit, eta, beharbada horregatik, hizkuntzak ez nau lehen bezainbat lotzen.

Baliatzen duzun euskara moduaz ari zara, zeure berezitasunetarik bat, dudarik gabe...

Bazter utzi dut auzi hori, hein batean. Ez zait denbora guztian zuzentzen ibiltzea gustatzen, ordenagailuko zuzentzaileak dena behin eta berriz gorri azpimarraturik ikustea. Ez dut lasaitasunik nahi dudana bezala idazteko, eta, horrek zehatzago idaztera behartzen nau. Ulertzeko ezintasun txiki bat edo zailtasun moduko bat ere badakar horrek askotan, baina, azken finean, irakurleak ematen dio amaiera ipuinari. Niri, ahal dudana ongien idaztea dagokit. Behin, Jose Julian Bakedano gidoi baten inguruan mintzatu zitzaidan. Nik Hemingway Kuban proposatu nion. Ipuina idatzi eta eman nion. Zoragarri iritzi zion testuari, baina filma ezin egin zuela esan zidan. “Nola egingo dut, bada, filma, txalupa bat itsasoan noragabe ageri? Ezinezko zait!”. Baina testua asko gustatu zitzaion. Nik, irakurle gutxi ditudalarik, Bakedano batek nire ipuina ederrestea, on da. “Ez nabilek guztiz oker, ez nabilek esperantoz idazten!”.

Hamahiru urte daramatzazu Kuban, gugandik aparte. Zu han zinela, Obabakoak lanak 25 urte bete dituela ospatu dugu...

Hara! Hogeita bost urte!

Bernardo Atxagaren hasiera eta Pott banda gogora ekartzeko ere baliatu da urteurrena. Pott, tartean zinen zu...



“Jendea akabatzeke kontzentrazio-eremua asmatu zuena, Weyler!”.

Batzuetan nintzen han. Bakedanoren laguna nintzen, Joseba Sarrionandia ere ezagutzen nuen. Sasoi hartan marrazten eta margotzen ibiltzen nintzen, eta Bakedanok bilera haietara joateko esan zidan. Egun batean agertu nintzen, han zer zen ikusi nuen, eta batzuetan haietara bildu nintzen. Ez oso konbentziturik, egia esan. Kontraesanak ikusten nituen. Euskara ikasteko prozesuan nintzen ni, eta hara joan eta Bakedano, erdaldun. Jon Juaristi, erdaldun... Atxagarekin, aldiz, oso ondo. Berak zuzentzen zuen hura: “Hurrengo aldizkarian zertaz ariko gara? Nork zer idatziko du?...”. Beste batzuekin, aldiz, nahiko dezepzio izan nuen. Euskara eta gaztelania nahaste hura. Kontuan hartu behar da zein zen sasoi, eta nire momentua, euskaraz ikasten ari bainintzen. Baina orduan eta orain, berdin pentsatzen dut: euskaraz egin behar baldin badugu, egin dezagun euskaraz. Gaztelaniaz nahi badugu, gaztelaniaz. Baina hainbat orrialdeko produkzioan lauzpabost euskaraz jartzeak ez du piperrik balio. Edo hogeita lau orduko telebista produkzioan hogeit minutuko saio bat euskaraz egiteak ere ez. Horiek folkloreak dira. Nahaste horri ez diot koherentziarik ikusten, herrian halako nahasterik ez denean. Argindarraren faktura bezala, ez al dugu beti gaztelaniaz irakurtzen?

Zertan zen Pott banda garaiko Urrutia Capeau?
Nik sasoi hartan ez nuen neure burua euskaraz idazteko gai ikusten. Uste nuen euskararik ez nekiela, estandarra besterik ez bainuen ezagu-

“Irakurleak ematen dio amaiera ipuinari. Niri, ahal dudan ongien idaztea dagokit”

tzen. Zozokeria hori. Gero, Zuberoara joaten hasi nintzen, eta han ikusi nuen euskara bazela. Ordu arte, Xabier Peñaren irratiko metodoarekin ikasitako bizkaiera eta Ondarroan egindako egonaldia nituen... Zuberoara joan arte ez nuen kolpea jaso. “Euskara bada!”. Horretan, eskerrak eman behar dizkiot Santurtziko Andolini [Eguzkitza], ordurako *Juan Tartasen Olsa hilceko bidia*-ren edizioa egina baitzuen, balio handikoa enetako! Hura aurkitu nuelarik, irakurri nuen, eta Barkoxen, konturatu nintzen jendeak berdin esaten zituela gauzak! “Hiru-rehun urte igaroak dira, eta gauzak berdin esaten jendeak? ‘Hain da eder non lilurtzen bainuzu!’”. Nola da posible, ordea?”. Zer da, beraz, politago, nik hemen ikasitako “Ederra haiz, harako arrosa baino!” –hemengo aldean zakar esanik beti–, edo Barkoxen, edozein baserritarrek duen literatura? Horrek harrapatu ninduen, edertasunak. Barkoxeko hizkera jo nuen lehenbizi, eta

lapurtera gero. Axular jo nuenean, hura baino ederragorik ez nuen aurkitu. Hala ere, niri, beste gustatzen zitzaidan, Leizarraga, baina ezin esan! Nire ustez, hura izan behar zen bidea, baina horretarako zabala izan behar zen, ez motza, eta inongo espanturik gabe onartu behar ziren gaur egun Iparraldean, oraindik, bizirik diren hitz eta forma asko. Hemen, garbizale, estu jokatu zuten. Iparraldekoek arrazoi zuten, eta dute, hizkuntza aditza, deklinabidea eta sintaxia delako. Lexikoa ere bai, baina lexikoa mugikor eta aldakor da, ez da funtsa, azala da. ■





Euskal Herria ezagutuz


DULANTZ-LIZARRA (NAFARROA)

Paisaien muga

Txileko familiaren bisita probestu eta antzinako bide bati ekin diogu. Lizarrusti Lizarra hiriarekin lotzen duena. Bidea aitzakia izan da. Zeltak, antzinaroko sinesteak, basolangileen bizimodua, elizaren pisua eta karlistadak izan ditugu hizpide sei orduko ibilbidean, berdetik horira, pagaditik olibadira eramanen gaituen ibilbidean.

| PATXI LARRION |

Argazkiak: Sergio Casi Larrion



Lizarrate ibarraren ikuspegia.

ORDU TXARREAN aitatu nion duela bi urte Txileko bestelehengusuari birraitatxi Leocadio Etxabarriren historia. Ekaizako lantegiaren inguruak ezagutzeko grinaz heldu da aurtengoan, eta ez dut beste erremediorik izan, Lizarren bidea egin behar dut berarekin. Egiaren aitortzeko bide erdia egiteko asmoa dugu, bide honek hasiera Lizarrustin, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga baitu, Ergoienako Lizarraga igaro eta portua pasa eta gero Lizarrateko ibarra zeharkatzen du, ibilbidearen helmuga Lizarra, karlisten hiri buruzagia. Esan bezala, bide erdia egiteko abiatu gara kotxez Leocadioren sorlekutik, Allingo Etxabarritik, osaba Jenarok NA-120 errepidetako hogeigarren kilometroan utzi gaitu, bertan dira Zunbeltzeko benta izandakoaren hondarrak. Gogoan dut, ARGIAKO Ihesi sail honetan Muskilda Tellabidek inguru hauek hartu zituela hizpide 2000an (1763. alea).

Goizeko 8:30ak dira, litro bana ur daramagu, baina bidean izanen dugu kantinplorak non bete. Goizak bero sapa iragartzen du. Osaba agurtu eta bideari ekin diogu, benta izandakoaren hondarrak igaro eta ezkerredera hartu dugu, ibilbidea aski ongi adierazia dago, txirrinduz ere egin daiteke. Dulantz dugu lehendabiziko jomuga, ia 400 metroko desnibela gainditu behar dugu, eguneko aldaririk pisuena daukagu aurrean.

Sakrifizioa, Lizarraten sartzeko ordaina

Dulantzera bidean, Lizarren bideaz dakidana berriro diot lehengusuari, antzinako ibilbidea omen da. Zenbait adituren ustez zelten bide bat izan zen, egiaren aitortzeko, Lizarrusti-Lizarraga-Lizarrate-Lizarra parajeek lerro zuzena osatzen dute, eta kondairak dioenez ibiltariak Lizarrateko ibarrean sartu aitzin sakrifizio bat egin behar zuten Lizarrara iritsi nahi bazuten.

Dulantz (1.243 m) mendi tontorrera heldu gara. Tontorra baino muino bat da, Urbasako punturik altuena. Erpin geodesiko honetatik egun garbietan oso eremu zabala ikusten da, amatxi zenak zioen gisara: “Pentsa, Gaztela ere ikus daiteke”. Hegora begira garelarik gure



Kerezmendiko oihan magikoa.

gibelean Beriain eta eskuinean harrizko pareta bat, Limitazioak mendia zedarritzen duena. Mendi mitikoa eta liskar ekarlea, baso-soilgune bat seinalatu diot lehengusuari: bertan zituen gure familiak txabola eta lantegia, han gazte denboran Leocadiok egunak ez, hilabeteak eman zituen bakardadean ikatza egiten. Mende bat eta erdi igaro da ordudanik.

Dulantzeko talaian erabaki bat hartu behar dugu. Bi baitira Lizarrara joateko ditugun aukerak. Eskuineko oihaibidetik Ekaitza-Kerezmendi-Larraitza-Ollarrate, ezkerretik joanez gero, Lizarrate-Irantzu-Ollarrate. Lehenbizikoa luzeagoa da, baina badu bere xarma, Ekaizako elurzuloak, Kerezmendiko harri liluragarriak, ikazkinen oroitarria, eta bisten elegantzia Etxabarriko haitzetatik. Azkenik ezkerrekoa hobetsi dugu, 9:30ak dira eta jada eguzkiak gogotik berotzen du. Ekaiza, Leocadio-

ren sufrikarioen eremua bisitatzerena beste urte baterako utzi dugu. “Sakrifizioa egiteko prest” bota diot, txiletarrak ez dit entelegatu. Dulantzetik ezkerredera abiatu gara, bost minutuz egindako bidea desegin dugu, Portandia dugu hurrengo helmuga, hortik aitzina beti hegorantz.

Portandia-Zanabe tumuluen eremuan gara, Lizarrate ibar txikiaren goiko aldean. Sakrifizio aldare-harria hasi gara aztertzen: harriak lau sakonune obalatu ditu, legendaren arioren sakonune horien funtzioa sakrifikatutako abereen odola biltzea zen. Mokadu bat hartu dugu, hori izan da egin dugun sakrifizio bakarra. Irantzura Lizarrateetik barna daramagun oihaibidean hainbat ur putzu topatu ditugu. Horietako batean hamar minutu lehenago aurreratu gaituzten txirrindulariak bainu bat hartzen aurretik ditugu. Euskaraz zuzendu natzaie, Urbasako Otsaportillon



Irantzuko monasterioko klaustroa. Iturria ageri da lehen planoan.

utzi dute autoa eta gelditu gabe aritu dira Lizarrateko putzuetara ailegatu arte. Bero sapa eguerdiaren atarian.

Irantzuko organo-jotzailea

Irantzun garagardo baten txirrinta kendu eta monasterioan sartu gara. Atarian kartel bat da, bisita antzeztuak iragartzen ditu abuztuko zenbait egunetarako. Jatorrizko tenplua erromanikoa da, Mendizabalen desamortizazioak (1835) ixtera behartu zuen, baina monjeek karlisten babespean 1839 arte bertan iraun zuten. Ehun urte geroago, 1942an, Bianako Printzea Erakundeak berreraikitze lanak hasi zituen. Egun ez dabil haizerik baina halere Iturralde y Suiten Irantzuko organista eroaren legenda berritu diot lehengusuari. Nonbait, Bergarako

hitzarmenaren ondoren monjeek alde egin zuten, baina monje organo-jotzaileak ez zuen monasterioaren eskualdea abandonatu, ahal zuen guztietan Irantzura hurbiltzen zen, haizeak monasterioaren hondarrak zeharkatzean sorrarazten zituen doinuekin miserere bat konposatu zuen Irantzuko organista eroak. Iturralde y Suitek kontakizun honetan Nafarroaren dekadentzia eta liberalkeriak eragin hondamendia irudikatu zituen.

Egun legenda honen egi-antzak inguruko herrietan antzeman daitezke, monasterio zaharraren harri ez gutxi Abartzuza edota inguruko herrietako etxeak eraiki edota berre-raikitzeo erabili baitziren. Harriak ez ezik bestelako objektuak eraman zituzten inguruko biztanleek, XIII. mendearen akaberarako ama birji-

naren eskultura polikromatua XIX. mendeko erdialdean Etxabarriko elizan laketu baitzen.

Irantzutzi eta berriz ere egindako bidea desegin behar izan dugu. Hiru minutuko kontua da, ezkerreko oihanbidea hartu dugu, eguneko bigarren aldapa: ez da aurrenekoa bezain pisua baina eguzkiak malkartsu bilakatzen du bidea. Gogotik eskertu dugu landatutako pinuek —astakeriak nonahi dira— eta bertako artadiak eskaini itzala. Ollarrateko lepoa da gure hurrengo xedea, Etxabarrin Bedaga toponimoa ibiltzen dugu mendi-lepo hori izendatzean. Bertan, Larraitatik datorren bidearekin bat egin dugu, urruti geratu dira pago eta haritzak, artearen eremuan gara.

Ollarraten 1492an, Ameskoa, Etxabarri, Eraul, Irantzuko monasterioa eta Abartzuzako ordezkariak bildu ziren, eta Limitazioak mendiaren ustiatzea arautu zuten. Arauak aldaketak izan ditu mendetan zehar, polemikoena 1903an: aski ongi bustitako afari baten ondoren adostutakoa da, baina hori beste historia bat da, hori bai, ameskoarra beti irabazle.

Karlista eta liberalen oihartzuna

Azantza haitza dugu gure eskui-nean, aurrera segitu behar dugu Eraulgo herriko iturria amets. Hala ere ez dugu biderik zuzenena hartu, Lazkuako langara ailegatzeko Eraul eta Etxabarri herrien arteko mugalerroa jarraitu dugu. Ibileran Atxagaren *Sara izeneko gizona* liburuko pasarte bat akordura ekartzea otu zait, 1834ko abuztuaren 19an Zumalakarregiren tropek Carandoret baroiaren ejertzitza txikitu zuten gugandik aski hurbil den San Faustoko haitzetan, baina ez diot txiletarrari ezer esan nahi lehendabiziko karlistadaz.

Leocadioren sorterriari begira San Mameseko ermita seinalatu diot lehengusuari. Menturaz hor zen Leocadio 1873ko maiatzaren 5ean, aipatu dut nik, gazteegi erantzun dit txiletarrak. Bederatzi urte zituen lehengusuaren birraitatxiak Eraulgo bataila gertatu zenean. Orokieta porrotaren ondoren karlistek erdietsi zuten lehendabiziko garaipena izan zen Eraulgoa. Lokizko mendi-

lerrotik gu garen tokira iritsi ziren Dorregarai, Valdespina, Lizarraga, Olo, Radica eta beste, Joaquín Navaroren koronelaren giriengandik ihesean. Azkenik aurre egin zieten, non eta Etxabarriko lurretan, baina historiak Deierriko Eraul idatzi du kroniketan. Lehengusua piztu da batailaren egiazko gertalekuaren berri izatean, txiletarrak Etxabarri du abizena, guk jada bosgarrena dugu abizen hori. Etxabarrin 1864an sortutako Leocadio Etxabarririk 1894an utzi zuen Allin ibarra. Zer dela eta? Kontatu digutenez, ez zen oso ongi moldatzen bere aitarekin. Gerra ondorengo albo-kalteren bat? Eta hala balitz, nor zen liberala eta nor karlista?

Eraulen sartu gara, iturritik trago luzea hartu dugu. Iturrietako ura edan dugun guztietan, kalparraren historia berritzeko tentazioa izan dut, honetan amore eman dut, tradizioak dioenez gizonezkoen artean oso burusoil gutxi da Eraul eta Etxabarrin. Urak daraman karea ote? Lehengusuak farre egin du eta eguzkitara ateratzean dir-dir egin du bere kalpar urdinduak.

Eraulgo artea, gerraren lekuko

Abartzuzarako errepeidea hartu dugu, bostehun metrora Eraulgo artea, zuhaitzaren sabel urratuari so geratu gara. Artearen gibelean Eraul eta Allin ibarra, ezkerrean Abartzuza eta Muru-Mendia. Bostehun urte omen dituen Eraulgo artea talaia ezin hobea zatekeen 1874ko uztailaren 27ko bataila ikusteko. Hartan ere gorritz tindatu ziren galsoroak, besteak beste Concha jeneral liberala hil zuten bataila hartan. Txillarde-



Bostehun urte omen dituen Eraulgo artea talaia ezin hobea zatekeen 1874ko uztailaren 27ko bataila ikusteko.

giren *Putzu* eleberria ekarri dut hizpidera, nik dakidala ez dute gaztelaniara bihurtu. Osaba Jenaro euskara ari da ikasten Txilen, menturaz inoiz ezer konta diezaioke semea duen nire lehengusuari. Errepublikak karliberal baten aldekoa nintzela esan nuen Joseba Tapiaren *Eta tira eta tunba* (2010) lanaren karietara, garbi dut, lehengusuari diska oparitu behar diot.

Azken arteek bidea zedarritzen dute. Ekiloreak eta garigaiak inguruko soroetan, olibondoren bat ere ageri da Lizarrara bidean. Ez dira ikusi ditugun lehenengoak, Ollarriten eta Lazkuako langan ginela Etxabarriri begira olibadi bat ikusi dugu, zuzen harturik bi kilometroko tartea da olibadi horretatik hai-

tzetan ikusten diren lehenbiziko pagoetaraino.

Bearingo dermioan sartu gara baina ez dugu herri kaskoa zapaldu. Lizarrako ospitalea dugu aurrez aurre, sei ordu eman ditugu oinez, eskerrak ez zaigun urik falta bidean. Osaba Jenaro Lizarrako zezen-plazaren ondoko tabernan dugu zain. Txangoa berriro diogu, gaur ez gara Karlsten hiri buruzagian sartuko, paisaien mugara nahi dugu itzuli. ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune
parte-hartzailea.

Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com



Helduen literatura | ITZULPENEA

Gela bat norberarena

Virginia Woolf

Itzultzailea: Maria Colera Intxausti.

Consonni, 2013

Liburuak azpimarratzen dituztenentzat

EMAKUMEAK ETA LITERATURA gaiari buruzko bi hitzaldi dira lan honen oinarriak. Woolfen arabera “era guztietako aurreiritzi eta grinak pizten dituen gaia” da. Bi espaziotan kokatzen da bertan kontatutakoa: Oxbridge eta London. Lehena (Oxford/ Cambridge) unibertsitatea eta bigarrena British Museumeko liburutegia. Lehenean agerian uzten du zein den emakumeek (izan) duten debekuz betetako egoera, eta honen aurrean “sexu baten segurtasun eta oparotasunaz eta bestearen pobrezia eta segurtasun gabeziak” delakoari buruz dabil. Bigarrenean “egia”ren bila abiatzen da eta gizonak emakumeei buruz hamai-ka liburu idatzi dituztela aurkitzen du, aholku eta irain sortak, “ireki ere egin gabe” lasai utzi daitezkeen liburuak direla ondorioztatuz. Amorrua sentitzen duela agertzen da testuaren zati honetan behin baino gehiagotan, itzulpen honen edizioan azpimarratuta agertzen zaiguna.

Woolfek hau gainginditzeko bizitza osorako errenta eta norberaren gela aldarrikatzen ditu. Izenburuan dakusagu, lan honetako mezu nagusia baita: emakume idazleek behar dutena bere gela, urtean 500 liberako errenta eta pentsatzeko eta esateko askatasuna dira. Sorkuntzarako egoerarik onena zein den ere hizpide du, eta bere ustez, edozein idazlek literatura egiteko “gogoaren batasuna” behar du, gizonak haien maskulinitasunean gotortuta eta emakumeak haien femininitasunak mugatuta geratu gabe. Honen ostean gizonak idatzitako literaturan emakumeak nola agertzen diren azaltzen du, eta emakumeek garai desberdinetan idatzitako literatura aztertzen du, fase diferenteak pasatu dituztela adieraziz eta hauek egindako ekarpenak zeintzuk izan diren eta izan daitezkeen aletuz.

Fikzioaren eta errealtatearen artean egiten du salto etengabe, emozioa eta arrazioa harilkatuz eta edertasunaren deskribapena gertakari- buruzko iruzkin ironikoekin tartekatuz. Ondo-


rioen artean Emakumeak eta literatura gaiari buruz pentsatzen du “zorigaiztokoa dela idazten duen edonorentzat bere sexuan pentsatzea” lehenago aipatu dugun “gogo batasuna”ri garrantzia emanez. Bere entzule-irakurleei gomendatzen die mota eta gai guztietako liburuak idazteko eta gogoeta eta amets egiteko Shakespearearen balizko arreba haiengan jaio dadin, bere garaian izan ez zuen aukera haien bitartez izateko.

Literaturaz gozatzeko eta kontzientziak pizteko iruditzen zaigun lan erreferentzial eta eza- gun hau Consonnik ekarri du euskarara, Maria Coleraren itzulpenarekin, crowdfounding dela- ko finantziazioaren bidez, eta bihotzez esker- tzen diegu ekimen hau. Hala ere pena txiki bat geratu zaigu izenburuarekin, itzulpen literala aukeratu beharrean —*A room of one's own*— ego- kiagoa iruditzen zaigulako euskal kulturaren urteetan erabili izan den *Norberaren gela*, 1987an Mariasun Landak Emakumea eta literatura gaia zuen monografiko batean (*Jakin* 45) bere artiku- lurako erabili zuen itzulpena: “Virginia Woolfen *Norberaren gela*”, tradizio txorri jarraipena emanez.

Amaitzeko esan nahiko nuke oso gustura berrirakurri dudala liburu hau, oraingoan euska- raz, eta irribarrea marraztu zaidala pasarte batzuek liburutik irten eta bere ibilbidea egin dutela egiaztatzean edo literaturari ikuspegi feministatik begiratzen hasi nintzaioneko garaia gogora ekartzean. Eta harrিতa geratu naiz, hain eza- guna zaidan liburua izanik ere, pasarte batzuk azpimarratu ditudalako, horretarako oso apro- posa baita lan hau, gogoangarriak diren eta azpi- marratzeko moduko pasarte, dagoe- neko klasiko, ugari dituelako. ■

Amaia
Alvarez Uria





Simplicis'
El Desván del Macho
Alehop!, 2013

Erradikalena, bere printzipioei eusten diena

UDA SASOIA proposa da eguneroko abiaduran albo batera uzten ditugun proposamenei erreparatzeko. Halakoa da, esaterako, beti hor egon den baina, argitasunari bizkarra emanda, bere bide propioa egiten duen El Desván del Macho taldea. Arrasaten sortua da 80ko hamarkada bukaeran, eta bertan dago oraindik taldearen muina, baina edozein lekutakoa izan zitekeen, edo, hobe esanda, inongoa ez. Taldeari zentzua, nortasuna eta, finean, izana, JG Izcuek ematen dio. Musika, literatura, pintura, arkitectura, gastronomia eta beste hainbat diziplina artistiko modu ia obsesiboan kontsumitzen dituen arrasatearrak idazteko eta espresatzeko oso modu berezia dauka, gure koordinadatan parekorik ez duena, jarraitzaile gutxi baina fidelenak erakartzen dituen, eta beti haize kontra doana.

80ko hamarkada erdian, punka eta antzekoak nagusi zirenean, Izcuek Matrona Impudica taldea sortu zuen, erradikalen artean erradikalena, musika siniestrota, iluna eta gitarra makurrak errebindikatzen zituen. Gerora, Cancer Moon-en parte hartu zuen eta Anitua eta Suinagaren laguntzaz, Jugos de Otros eratu. Biek ala biek oso kritika onak jaso zituzten, baina garai hartako entzuleek eskaintza simple eta zuzenak hobesten zituzten.

1989an, J.G.k Francisco anaiarekin eta Vicente Mijangosekin El Desván del Macho sortu zuen. Munster, Ruta 66, Subterfuge eta beste batzuen bildumatan parte hartu ostean, mezu kriptikoz jositako *Hermana Violencia* (Nuevos Medios, 93) disko gordinak erakutsi zuen hirukoteak ez zuela

kontzesiorik egingo. Strangers, Killing Joke, Magazine... Punkaren baitan aurki zitezkeen birtuosismo eta iluntasun autentikoenetatik edan, pop-arekin ezkondu eta ezohiko proposamena lortu zuten, industrialaren aurrekaria ere bazena. Arrasaten inork gutxi entzun bazituen ere, Euskal Herriko eta Espainiako txoko ezberdinetako musika zaleak, edozerrekin konformatzen ez direnak, txunditu zituzten.

1996an, Madrilgo Alehop! zigituarekin bizi osorako ituna egin eta *Lumbar* disko autobiografikoa kaleratu zuten; jantzi pop-rockeroagoa du, baina sanpler eta loop-ak erabiltzeaz gain, intentsitatea ere barra-barra du.

Lozorro luze batean sartu zen taldea eta 2008an *Vida a partir del huevo* kaleratu zuten. Kantuak boro-bilagoak dira, konponketak anitzagoak eta badirudi emaitza komertzialagoa dela. Hala ere, lan hau aurkezteko emanaldiak ordura arteko trinkoenak eta bortitzenak izan ziren. Puntu horretan, taldeak zuzenekoak eta diskoen kontzeptuak muturrera eramane zituen. Bietan maisuak!

Eta orain, Mexikoko single bat kaleratu ostean, *Simplicis* lan luzea oparitu digute, eta taldeak beti izan duen apartekotasun hori, konposatzeko abilezia puntakoena eta Today is The Day, Unsane eta antzeko gaur egungo talde post-hard-core obsesiboak eramane dituzte arrasatearren puntura. ■

Iker Barandiaran



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia

Hitz gezidunak

KIROL JAPONIARRA SEHASKA		ALDI, SASOI BIDELAPUR		SARRERA OZTOPATU		EGOKI PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ)		BILBOKO OKUPAZIO MUGIMENDUA TIK-...		DENBORA OROTAN LAOSKO HIZKUNTZA OFIZIALA		JENTIL DIGESTIO
				ITSAS ARRAIN HANDIA TORIOAREN SINBOLOA								
IBILALDIA NONDIK- NAHI							AMONA, AMAMA IODOA					
									PERTSONALA- REN IZENA EUSKAL FONEMA			
EGUNEROKO JANGAI	501 ERRO- MATAR ERAN PERTSONALA- REN ABIZENA			 J.A. ARETA GOÑI JOXE						GAREN HAUEK Ezkila		
			ELIZKIZUNEN MULTZO							AURRIZKI EKOLOGISTA MURMURI- KATU		IZAERA, ESENTZIA
ILE (BIZ- KAIERAZ) NAIZEN HAU												
		ROENTGEN LARRUAZA- LEKO GAIXOTASUN								ITXURA, EITE IRUDI GEO- METRIKO		
SOBERA, GEHIEGI ATERA, IRTEN												
				EGUZKIA		SUARI DARIONA NORAT ATZIZKIA		KILOA ERREPIKA- TUZ, ALDABA JOTZEA		AZPIA NIOBIOAREN SINBOLOA		TONA DEZIMETRO
				KOTOIZKO EHUNA SOZETATE MUGATUA								
AXOLA, KEZKA IBILGAILUEN GURPIL						JARRAIBIDE ON BAT, ERRO- MATAR ERAN						
										ITURBURUA, JATORRIA		

Kike Amonarrizen umorea

Eskalea eta aberatsa

Eskaleak urrezko erlojua eta kateak daramatzan gizon bat ikusi du hurbiltzen. Parean egokitu zaionean eskua luzatu dio eta:

– Limosnatxo bat jainkoaren izenean. Bost euro besterik ez, kafetxo bat hartzeko.

– Bost euro kafe bat hartzeko? Ez didazu sinetsarazi nahiko kafe batek bost euro

balio duela, ezta?

– Aizu! Ez dakit zuk zer nolako heziketa izan duzun, baina nik, kafea hartzen dudanero, eskupeko ona uzten diet zerbitzariei!



Soluzioa

M	A	I	R	G	O	S	I	Z	A	T	D	E	A
B	E	T	X	I	E	K	A	N	T	P	E	A	
B	O	L	A	O	I	T	S	E	R	A	N	T	
O	T	A	M	A	I	K				K	E	T	O
I	T	X	A	I	T					E	K	R	E
G	A	R	H	I						L	A	R	
S	U	M	A	D	I	E	R			I	L	K	
K	N	O	G	I						N	I	L	

Dantza maitatzeko garaia Miarritzen

IRAILAREN 6AN hasiko da Maitaldia, Euskal Herrian egiten den dantza jaialdirik garrantzitsuenetakoa bat, eta horrenbestez, dantzaz jantziko dira Miarritzeko areto, plaza eta kaleak, bederatzi egunez. Nazioarteko 30 konpainia inguru bilduko ditu jaialdiak, eta obra neoklasikoek —dantza klasikoak baina gaurkotuak—, garaikideek eta modernoek edo hiritarrek—hip hop—a kasu— osatuko dute aurtengo menu aberatsa.

Deigarria izan ohi da beti aniztasuna, Biarritz Culturek antolatutako programan. “Eklektikotasuna dugu ezaugarrietako bat, ez ditugu gustuko etiketak, eta zaletu guztien gogoasetzeko gai izan nahi dugu”, diosku Eloixa Ospitalek, antolatzaileen izenean. “Koreografo bakoitzak bere hizkuntza du, idazteko eta kontatzeko modu bat. Sailkatzea zaila da askotan”. Hala ere, dantza garaikidea da nagusi aurtengo programan.

23 urtez antolatu da Maitaldia eta honek ospea eman dio. Horri esker, gurean ohikoak ez diren konpainia handiak ikusteko parada eskaintzen digu jaialdiak, kasurako, Nurembergeko Operako Balleta. Goyo Monterok zuzentzen du Nurembergeko Balleta, eta honen azken lana, *Benditos Malditos*, iraila-



Maitaldia 2013

Non: Miarritzen, areto, kale eta plazetan.

Noiz: irailaren 6tik 15era.

ren 13an ikusiko da, Gare du Midi aretoan. “Guretzat oso pozgarria da horrelako konpainia handi bat ekartzea”, azaldu digu Ospitalek: “Kontuan izan, 25 dantzarik parte hartzen dutela lan honetan, eta horrelako montajea mugitzea zaila izanik, harro gaude gurera etorri nahi izan dutelako”.

Hainbat musikari eta olerkari egiten dio gorazarre Benditos Malditos lanak. Joaquin Sabina, Vinicius de Moraes, Luz Casal edota Tom Waits-en olerkiak baliatzen dituzte dantzari hauek.

Miarritzeko Malandain Balletak zabalduko du Maitaldia, irailaren 6an, Gare du Midi aretoan. Thierry Malandain koreografoak zuzentzen duen konpainiak *Cendrillon* (*Errauskine*) eskainiko du. Harekin, Sergei Prokofiev-ek ipuin ezagunari sortutako musika interpretatuko du Euskadiko Orkestrak.

Berezia izango da, bestalde, Oliver Dubois koreografoak erakutsiko duen *Tragedie* lana (irailaren 8an, igandean Gare du Midi aretoan). Ospitalek azaldu digunez, “ez da oharkabean pasako, oso emozio gogorrek mugiarazten baititu”. 9 gizona eta beste horrenbeste emakumezko ariko dira,

rock doinu gogorren konpasean.

Suitzako Foofwa d’Imobilitate dantzariak *Histoires Condansées* lana erakutsiko digu irailaren 11n, asteazkena, Miarritzeko Colisée Antzokian. Dantzaren bilakaeraren inguruko ikasgai dantzatu eta mintzatua eskainiko digu dantzariak, ez umore eta ironiarik gabe. Antzerkia eta dantza nahasten dira lan honetan.

Euskal konpainiei dagokienez, Mizel Thèret lapurtarraren taldeak *Hiru Zitroi Lur Hotzean* obra eskainiko digu irailaren 14an, larunbata, Les Découvertes eta Theatre des Chimeres aretoetan. Lau dantzari arituko dira Beñat Achiaryren amodiozko abestiak lagun. Lirismoa, minimaltasuna eta intimotasuna dira nagusi dantza garaikide honetan. Dantzaz konpainia ere bertan arituko da irailaren 12an, osteguna, Casinoko Antzokian. *Arte-an* izeneko lan garaikidea eskeiniko digute Itzik Galili koreografo israeldarraren gidaritzapean. Mercedes Sosaren abestiak eta Paxkal Indok idatzitako txalapartarako doinuak izango dituzte oinarri dantzari gazte hauek.

Maitaldiak presentzia handia izaten du kaleetan. “Ez dugu dantzaren izaera popularra ahaztu nahi”, dio Ospitalek, “garrantzitsua iruditzen zaigu jendeak bat-batean dantza aurkitzea, publiko berriak sortzen baititu”.

Hiru eraskusketa ere badira, Maitaldiaren programaren aberasgarri. Tartean, AEBetan 30eko hamarkadan emakumez osatutako New Dance Club dantza konpainiaren istorioa kontatzen duena. ■

Myriam Garzia



Faizal Zeghoudi konpainiaren *Le Chant de la gazelle*, *Le Sacre du printemps* ou *le cri de l'indépendance* obra.

Auto elektrikoen bateriak hobetzen

HIDROGENOA erregai modura duten auto-mobil elektrikoen inguruan ikerketa ugari egiten ari dira, baina oztopo gairik ezin bat izan dute beti: hidrogenoa lortzeko platinoa behar izatea. Platinoa eskasa da naturan, eta ondorioz garestia. Hura ordezkatzeko egindako ikerketa lan gehienek porrot egin dute.



Kopenhageko Unibertsitateko Mathias Arenz-ek zuzendutako ekipoak platinoarekiko menpekotasuna gutxitzea lortu du, hainbat katalizatzaile erabiliz. Ikertzaileek lortutakoaren arabera, egun bateria bakoitzean behar den platino kantitatearen bostena baino ez da beharko.

Teknologia pixkanaka aurrera egiten ari den bitartean, zertan da auto elektrikoen merkaturak? Orain bizpahiru urte aurreikuspen oso interesgarriak egin ziren, Europan bederen, baina ari al dira betetzen? Ikusten al da bateriak kargatzeko entxufeen eraikitzea areagotu denik?

Gaiak artikulua sakonago bat merezi du, baina aurrerapen gisa aipa dezagun Espainiako Estatuan azken hiru urteetan gertatutakoa: Zapateroren gobernuak kide Miguel Sebastianek iragarri zuen 250.000 kotxe elektriko zirkulatuko zutela 2013an espainiar errepubliketan, baina une honetan ez dut uste 10.000 baino gehiago dabilenik. ■



Espazioa hobeto ikusteko

ARIZONAKO UNIBERTSITATEKO astronomoek lente berezia prestatu dute, egungo teleskopioei erantsen zaiona, eta horren bidez lurretik hartzen diren zeruko argazkiak askoz ere garbiagoak dira. Lente berezi horrek atmosferak sortzen duen dirdira ezabatu eta argazki askoz ere garbiagoak ateratzen ditu. Une honetan Txileko Las Campanas behategian instalatuta dago, eta jada Hubble teleskopio espazialak baino argazki garbiagoak ematen ditu. ■



KATIE MORZINSKI



Perseida edo izar usoen ikuskizun zoragarria

Kai Grabet argazkilari alemaniarak minutu bateko bideoan bildu ditu abuztuaren 9, 10 eta 11n Kaliforniako Joshua Tree parke nazionalen hartutako Perseiden irudiak. Ikus irudi sorta ederra ondoko loturan.

ttiki.com/54139
(Frantsesez)

Oinarrizko partikula guztiak agian ez daude espazio-denbora berean

Varsoviako Unibertsitateko ikerlari talde batek urtetan egindako azterketaren arabera, oinarrizko partikula guztiak ez daude espazio-denbora berean. Big Bang-aren aurretik ez zen existitzen guk ezagutzen dugunaren moduko espazio-denborarik. Hura nola sortu zen jakin nahian, fisikari poloniarrek ondorioztatu dute masadun partikula bakoitzak bere espazio-denboraren "bertsioa" eraikitzen duela.

ttiki.com/54140
(Gaztelaniaz)

Ez du axola ariketa fisikoaren maiztasunak, kantitateak baizik

Ontarioko (Kanada) Queen's University-ko ikerlarien arabera, ariketa fisikoaren eta osasunaren arteko erlazioan garrantzitsua da kantitatea frekuentzia baino, hau da, astero egiten den denbora guztia egun batean metatzeak edo denbora hori hainbat egunetan banatzeak ez du eragin nabaririk osasunean.

ttiki.com/54141
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Morkotsez lakatz, karloz zokal

SAN AGUSTIN GAZTAINA, abuztuaren amaian, irailaren hasieran Andra Mari gaztaina, Betulaza bezala. Baita Goiz gaztaina edo Arrate gaztaina. Egosteko egokiak diren Bentogorri, Legerio eta Azkoitia gaztaina goiztiarrak. Gero, azaroa artean mordoa. Latza, edo Horitxo latxa, gure azal mehea zulatzen duen arantza motzeko morkotsa duena. Irailaren amaierako San Migel gaztaina gozoa baina jasotzeko alua. Antzeko alua garaitzuko Txerka zuria, ale handiago eta borobilxeagokoa. Ale gozoko Iñurrio handia eta Iñurrioa. Eta Iñurri zuria eta Iñurri beltza. Bizkai zuriegi, Bizkai zuriena eta Bizkaia gaztaina, ttiki gozo, egosita jatekoak. Abadiño gaztaina, ipurdi handia. Lakatz handiko Txargoia eta Txapardoa, azken hori erretzeko aproposa. Markola eta Markol zaharra. Orri-beltza eta Hosto-beltza, bera ote? Iruria edo Iduria, Iñarmentua, Aritzaua, Bettargia. Mandotsak erren arantza urriko Gaztaina betegarriak aleek mardotsean gainezka egiten baitute. Morkol arantzatsuko Ulebera, arantza luzeko Uleluzea,

eta arantza zuriko Ulezuria. Sona handiko Gaztain gozoa, ale ttiki eta azal ilunekoa, jasotzeko txarra, baina gustu ederrekoa. Morkutsak lau edo bosnaka itsatsita ematen dituen Porkaltsa, Morkolarz eta Ilaundia, eclearen azala bixartsua dutena. Morkotea latza, mutxur zakarrekoa, ale gutxi eta ez oso gozoak, baina jasotzeko egokia. Meauregorria, azal gorriko ale handia, erretzeko estimatua. Otañu gaztaina, Ahuntz gaztaina, ale ederreko Argiñorda txertoa eta sona handiko Txertagorria, goizekoa, handia, gozoa, baina iraupenik gabekoa. Lesakarra, azal iluneko ale txiki fina eta estimatua. Ttikia, baita ere, Garrangira eta Naarbera ertaina. Zubiaga kirikio handia. Danbolatsa, ale ilun eta marraduna, oso berandukoa, gozoa eta irauten duena. Ataloea edo Artaloea, Metura eta Muizuar erretzeko onenetakoak. Amelatz eta Arbera finak. Ibarbaltz, emankorra, azal beltzekoa. Iguridi gozoa. Beranduko ale txiki beltzeko Lopetsa. Larramua, Azpeiti gaztaina, Eradegea, Lete gaztaina, Ederra, Herria, Marki, Frantzia gaztaina, Elorri

gaztaina, Ifarra, Kirrimahatsa, Berde gaztaina, Txakarroa, eta arbola galantetako Saboia. Sarobia, ale handi azal distiratsua eta gozoa. Jasotzeko egokienetako Gaztaina berdeak, karloaren koloreagatik, ale handikoak. San Martin, oso berandu heltzen zena eta batez ere zerri jendeari ematen zitzaiona. Zokalak itsatsiak dituen Txirikorda. Hirunakoa, sokoileko hiru alekoa eta Aita handia eta Amabirjin gaztaina ale handi bakarra dutena. Atso, Otxorpo... ezertarako balio ez duten sokorreko sei eta bederatzi ale ziztrinekoak. Arbots handiko Zugatzola, zuretarako oso ona. Azaro hasieran heltzen da Roke-tarra, handia eta itxura ederrekoa, baina makala eta iraupen eskasekoa. Beranduko Legerio beranduko, Itsu gaztaina, Berandumarkola, Beranga, Beremendu, Kirimetz, Mantulu, Lopetxa txikia, Zakarro eta Berdola eta azkenekotako Anbultsa, Ezlebera, Garrameatz, Iruerreketa eta Ibalamendu. Eta txertaka, basaka, txerri gaztaina edo edarega deitua. ■



Kontuz Bilborekin eta Bizkaiarekin

Energia kontrolatzea bezain emankorra da ura eta elikagaien kontrola. Ederki daki hori Monsanto, eta etorkizuna prantatzen ari da. Erosi berria du munduko soldadu mertzenario enpresa handiena omen dena: Academi, lehen Xe eta Blackwater zena. Bestetik, transgeniko eta ongarri eta botika kimikoen negozioa txikitxo, nonbait, eta hazien jabegoa duten enpresak ere erosten ditu. Oraintxe eskuratua du AEBetako barazkien hazien merkatuko %40 duen Seminis. Elikadura burujabetzaren aldekoek aitaren batean ekin diote bere haziak ez erosteko kanpaina bati. Ehunka barazki aldaera artean bere jabegokoak dira orain Bilbo izeneko azenarioa eta Byscaine izeneko piperra (argazkikoa). ■

Drakula, Aita Santuaren aliatu fina

MANTUA, 1459. Pio II.a Aita Santuak kristau herrietako ordezkariak kontzilioan bildu zituen, Konstantinopla hartu zutenetik etengabe aurrera ari ziren turkiarren aurka beste gurutzada bat antolatzeko asmoz. Baina, salbuespenak salbuespen, europar buruzagiek ez zioten deialdiari jaramonik egin, beren arteko liskarretan nahasita baitzeuden. Bi salbuespenetako bat Hungariako Mattias Corvinus erregea izan zen; bestea, Valakiako Vlad II.a Tepes printzea, *paldozfatzailea* ezizenez ezaguna, harengan oinarrituta Bram Stokerrek 1897an Drakula pertsonaia sortu zuenetik are ezagunagoa.

Bi buruzagiek turkiarrak oso gertu zituzten eta, beraz, haiek ziren Aita Santuaren proposamenak aurre egin zezan interes handiena zutenak. Pio II. arekin bat egitea erabaki zuten eta Aita Santuak 40.000 dukat eman zizkien turkiarrak geldiaraziko zituen armada osatzeko. Aita Santuaren babes ekonomikoak adoretuta, Vladek erabaki zuen Mehmed II.a sultanak mendekotza keinu gisa exijitzen zuen zerga -10.000 dukat eta jenizaroen ejertzitorako 500 gizon- ez ordaintzea. Erdeinua ezin onarturik, sultanak Vlad hiltzeko agindua eman zuen. Horretarako, Hazma Bey general turkiarrak Valakiako printzearekin biltzeko eskaera egin zuen, akordio berri baten baldintzak adosteko aitzakian. Vladek bazekien bilera hura tranpa bat zela; etsaiei aurre hartu zien eta turkiarren ordezkarietako kide guztiak paldoztatu zituen. Aita Santuari eta hungariar aliatuei bere asmoen berri eman gabe, printzeak Danubio ibaia zeharkatu zuen eta armada otomanoari eraso egin zion. 20.000 soldadu inguru paldoztatu zituen, paldoz eta gorpuz baso ikaragarria osatuz.



PINTORICCHIO



NICOLAE IORGA

Ezkerrean Pio II.a Aita Santua (1405-1464), eta eskuinean Vlad III.a Valakiako printzea (1431-1476), Vlad Drakulen semea, Bram Stokerren Drakula pertsonaiaren inspirazio iturria.

Nicola di Modrusa ordezkariaren hitzen bidez izan zuen Aita Santuak Vladek egindakoen berri: “Batzuk gurdien gupil azpian txikituta hil zituzten, beste batzuk biluztu eta bizirik larrutu zituzten, beste batzuk txingurretan erre zituzten; gehienak paldoztatuta hil ziren, paldoak uzkitik sartzen zizkieten eta, erraiak zeharkatu ondoren, ahotik irteten”.

Kristaudiaren buruzagi espiritualak moral kristauaren aurkako izugarrikeria horien berri izan zuenean, ez zuen ezertxo ere egin. Finean, helburu politikoek zuten lehentasuna, otomanoak arrastoan sartuta edukitzeak, alegia, eta gorpuz osatutako amesgaiztozko zuhaitzi hura fedegabeen aurkako arma psikologiko eraginkorra zen. ■



Arrastoak

Egiptoarrek meteoritoetako burdina landu zuten

GIANLUCA MINIACI/PETRIE



EGIPTO IPARRALDEAN, el-Gerzeh herrixka inguruko bi hilobitan, 1911n topatutako burdinazko bederatzi lepoko ale aztertu berri dituzte Londresko Petrie Museoko ikerlariek, eta 5.000 urte baino gehiago dituztela ondorioztatu dute. Beraz, inoiz aurkitutako burdinazko objektu landu

zaharrenak dira, Burdin Aroa hasi baino 2.000 urte inguru lehenago manufakturatutakoak. Eta nondik lortzen zuten lehengaia, gizakia burdina galdatzen ehunka urte geroago hasi bazen? Espaziotik, nagusiki burdinaz eta nikeliz osatutako meteorito zatietatik. ■

Bide katalana independentziantz

2012ko irailaren 11ko manifestazio arrakastatsuen ondoren, aurten *Via Catalan*ak herrialdea aldenik alde gurutzatuko du; 400 kilometroko giza kate erraldoia izango da. Zenbait sektoretatik leloa malgutzeko eskatu diote Kataluniako Biltzar Nazionalari; honek adierazi du mobilizazioa anitza dela, baina bertan parte hartzen duen oro “independentistatzat zenbatua” izango dela. 2014ko data hurreratu ahala, anbiguitasunerako gero eta tarte gutxiago ari zaie geratzen alderdi politikoei.

| URKO APAOLAZA AVILA |




Azken hilabeteotan kandlekin osatutako *estelada* argiztatuak osatu dituzte ehunka herritan. Irudian, Bartzelonako Familia Santuaren tenplu aurrean egindakoa.

DIADAREN EGUNERAKO ekitaldi ikusgarria antolatu dute Kataluniako Biltzar Nazionalak (ANC) eta Òmnium Cultural elkarteak. Ebrotik Pirinioetara luzatuko den giza kate handia egingo dute milaka lagunek,

Kataluniako Principat-eko 86 herri eta hiri lotuz. Jadanik 350.000 lagun daude inskribatuta bertan parte hartzeko eta katearen zati ia guztiak beteta daude. “Bide Katalana” deiturikoak 1989an Letonian, Estonian

eta Lituanian egindako “Bide Baltikoa” du inspirazio iturri. Orduko hartan ia bi milioi lagun artean hiru herrialdeak lotu zituzten SESBtik banantzea eskatzeko; hortik gutxira erori zen Berlingo harresia.



Giza katean parte hartu nahi duenak via.assemblea.cat webgunean izena eman dezake, jadanik 350.000 lagun dira. Ezkerreko irudiko mapan zati bakoitzaren egoera agertzen da, Ebroko eremua da oraindik bete gabe dagoena (eskuineko irudian). Kateak *Via Augusta* zaharraren bidearekin bat egiten du, Le Perthus eta Alcanar lotuz. Iparraldeko Katalunian eta Valentzian ez du jarraipen ofizialik izango, ANCren independentzia helburua Principateko lau lurraldeetara mugatzen baita. Antolatzaileek duela hiru mendeko gudua gogora ekartzen duen hasiera ordu sinbolikoa aukeratu dute: arratsaldeko 17:14.

ANCK Kataluniaren independentzia lortzea du helburu 2011n sortu zenetik, eta giza katea egiteko leloak bat egiten du helburu horrekin: *Via catalana cap a la independència* (bide katalana independentziarantz). Aitzitik, leloa dela-eta eztabaida piztu da, PSC eta Unió alderdietako hainbat politikarik nahiago bailukete autodeterminazio eskubideari erreferentzia egingo liokeen lelo lausoago bat.

Carmen Forcadell ANCKo lehendakariaren esanetan gaudituta dagoen eztabaida antzua da hori. Iazko Diadan erakunde horrek 1,5 milioi lagun bildu zituen martxa erraldoia antolatu zuen Bartzelonako kaleetan; Europan izan den manifestazio handienetako bat izan zen eta berezko estatu bat izateko katalanen eskaera mundu osora zabaldu zen. Manifestazio hark lortu zuen subiranotasunaren gaia alderdi politikoen agendara ekartzea. Artur Mas presidentek hauteskundeak aurreratu zituen eta erabakitzeko eskubidearen aldekoek erraz irabazi zuten. CIU eta ERCK autodeterminazio erreferenduma 2014an egitea adostu zuten.

Aurtengo ekitaldiarekin, antolatzaileek harago joan nahi dute, erreferenduma itzulezina izatea nahi dute, independentzia lortzeko azken pauso moduan. ANCK bere

azken biltzar nagusian deliberatu zuen erreferendumak 2014ko maiatzaren 31rako eginga egon behar duela, eta zentzu horretan, Forcadellek Masi eskatu dio Diadaren biharamunean kontsultarako data eta galdera finkatu ditzala.

Autodeterminazioa, independentzia eta murrizketak

Denborak aurrera egin ahala anbigotasunerako tartea estutuz doa, eta giza katearen leloak sortutako ika-mikak zenbaiten urduritasuna agerian utzi baino ez du egin. Ikusi beharko da Unióko politikari kontserbadoreenek bat egiten ote duten –Duran i Lleida azken unean azaldu zen iazko manifestaziora– eta

Bestalde, independentzia ezbaierik gabe defendatzen duen CUP erakunde politikoan iritzi ugari daude, lurraldetasunaren aferak –ANCK Principateko lau lurraldeen independentzia du helburu, gainerako herrialde katalanak aparte utzirik– eta borroka soziala alboratuta geratzeko arriskuak sorturikoak. Testuinguru horretan, CUPEk Bide Katalanean parte hartzeko deia egin duen arren, ezkerreko mugimenduek deituriko giza kate paralelotan ere ezkertiar independentistak izango dira; besteak beste La Caixa-ko eraikina eta Gironako Josep Trueta ospitalea inguratuko dituzte.

Katalanek murrizketa gogorrak jasan dituzte azken urteetan, bai osasungintzan eta baita zerbitzu sozialetan ere; berriki plazaratu den ikerketa baten arabera Katalunian 50.000 haurrek ez dute behar adina jaten. Bestalde, CIUren Gobernuak aurrekontuak luzatuko ditu ERCren laguntzarekin, Espainiako Gobernuak ezarritako defizit muga (%1,58) baxuegia delako; ondorioz, Generalitatak 2.500 milioi euroko murrizketak egingo ditu aurten. Iazko hauteskundeen ondoren ERCK hautatu behar izan zuen: CIUren murrizketak babestu ala independentziarako bide-orria

Aurtengo ekitaldiarekin ANCK 2014ko erreferenduma itzulezina izatea nahi du; independentzia lortzeko azken pausoa litzateke

PSCko katalanistek nola erantzuten duten. Sozialisten zuzendaritzaren jarrera giza katearen kontrakoa da, baina azken hila batean ehunka militantek alderdia utzi dute ildo ofizialarekin kritiko direlako.

Bide Baltikoa, 1989

1989ko abuztuaren 23an, ehunka mila lagun Letonia, Lituania eta Estoniako errepi-de eta kaleetara irten ziren aldarrikapen sendo batekin: elkartasunean estatu independenteak izatea. Egun horretan 50 urte bete ziren sobietarrek nazi-ekin akordioa sinatu zutela elkarren kontra ez egiteko; ondorioz SESBek Baltikoko hiru herrialdeak anexionatzeko atea irekita geratu ziren, hortik urtebetera gertatu zen hori, 1940an, Bigarren Mundu Gerra hasi eta berehala.

50 urte geroago egoera oso bestelakoa zen. Perestroikaren ostean, Sobietar Batasuna desagiten ari zen zantzu garbiak zeuden eta herritarren protestak gero eta agerikoagoak ziren. Testuinguru horretan, Baltikoko herrialdeetako jendeek urteurren hura baliatu zuten ekimen ikusgarri bat burutzeko: errepublika horietako hiru hiriburuak (Tallin, Riga eta Vilnius) lotuko zituen giza kate erraldoia antolatu zuten, 600 kilometro baino gehiagokoa.

2013an katalanek egin moduan, Bide Baltikoan hutsunerik ez egoteko, katea zati ugaritan banatu zuten, autobusak antolatu zituzten leku urrunenetara, irratiz ere koordinatu zuten ekimena... Arratsaldeko



LRS



LRS

Letonia, Estonia eta Lituaniako hiru hiriburuak elkartu zituen Bide Baltikoak, 600 kilometroko giza kateak.

16:00etan elkarri eskuak eman eta inoiz egin den giza kate handiena osatu zuten 15 minutuz. Zenbait kalkuluaren arabera 1,5 eta 2 milioi lagun artean bildu ziren giza katean. Hilabete batzuk geroago Berlingo harre-sia erori zen eta hortik gutxira Baltikoko errepublikek euren independentzia aldarrikatu zuten.

Egun, Lituaniar, Estoniar eta Letoniar harrotasun osoz gogoratzen dute 1989ko ekimen hura, hainbat oroitari jaso dituzte horretarako eta gertaera mugarritzat hartu izan da euren historian.

arriskuan jarri. Lehenengoaren alde egin zuen, olatu independentista ez galtzeko, eta badirudi ez zaiola apustua gaizki aterako, hainbat inkesten arabera eserlekuak bikoiztu eta lehenengo indar bilakatuko litzateke Legebiltzarrean.

Artur Masen alderdia, Convergència Democràtica de Catalunya, bete betean ari da ekitaldiaren beroketa lanetan, baina presidentek ez du giza katean parte hartuko. Dena den, ANCren ordezkari-tza bati harrera egingo dio eta Generalitateko Batzorde Betearaz-leak kontseilari eta karguei baimena eman die pertsonalki giza katean parte hartzeko, “positiboki” baloratu baitu ekimena. Badirudi, iazko manifestazioa eta gero, politikariak ohar-tu direla Katalunian barne motor bat martxan jarri dela, gizar-te zibilak osatzen duela makineria, eta alferrik saiatuko direla GPSko

koordinadak aldatzen edo abiadura moteltzen. Generalitateko azken barometroak dio kataluniarren %55ak independentziaren alde bozkatuko lukeela balizko erreferendum batean, bi urtean 15 puntu igo da portzentaje hori.

Artur Masek ekitaldia aprobetxatuko du orain arteko bideari segi eta Katalunia nazioa dela aldarrikatzeko. Baina hortik harago zer?

Motorrak berotzen

ANCk 30.000 bazkide inguru ditu, Kataluniako gizarteko eragile eta jendartearentzat erreferentzia diren pertsona ugari eman diote babes. Erakundeak eskualdeka eta sektore-

ka du antolatuta bere egitura eta herriz herri lan itzela egin du kanpaina bakoitzean. ANCko kide ugari CDCko eta ERCko koadroak dira, baina eremu politikotik haragoko jende asko ere biltzen du eta hori da bere indargune nagusia.

Bide Katalana jendez oso-oso betetzeko, giza katea zatika banatu dute antolatzailak. Eskualdeko eta herri bakoitzeko taldeak dira euren zatia dinamizatzeaz arduratzen direnak. Giza katearen %80 baino gehiago jadanik osatua dago, Ebro inguruko eta La Jonquerako lur basak dira oraindik guztiz ziur ez daudenak. ANCk herritarrei dei egin die zati horietan ere izena emateko.

Irailaren 11 gero eta hurbilago den neurrian, mobilizaziora deitze-ko ekitaldiak ugaritzen ari dira.

ASSEMBLEA.CAT



SANTCUGAT.ASSEMBLEA.CAT



Giza kateak egin dituzte munduko hainbat txokotan: Tokion, Edimburgon, Sao Paulon, Los Angelesen... Guztira 90 hiritan antolatu dituzte halakoak. Euskal Herrian, Independentistak sareak ere giza kateak antolatu ditu hiriburuetan, hilaren 7an, eta Bilbon irailaren 11ko arratsean bertoko komunitate katalana beste giza kate bat egitekoa da, sare sozialetan zabaldu dutenez. Twitterren #viacatalana eta #femvia (egin dezagun bidea) hashtag-en bidez erabiltzaileak etengabe ari dira informazioa eskaintzen eta iritzia ematen. Bestalde, irailaren 8an Kataluniako 400 mendi gailurretan *estelada* jasotzeko ekimena ere abiarazi dute.

Eta gero zer?

Inork ez du zalantzan jartzen Bide Katalanak arrakasta izango duela eta iazko Diadako manifestazioarekin gertatu moduan, Kataluniako inde-

Antolatzaileek 20 abioneta alokatu dituzte giza katearen irudiak bere osotasunean grabatu ahal izateko

pendentismoaren indar erakustaldi paregabea izango dela. Mundu osotik joandako komunikabideek jasoko dituzte giza katearen irudiak eta berriak; antolatzaileek 20 abioneta

Goiko irudian, Poloniako Szczecin hirian egindako giza katea eta behean Sant Cugat herrikoa. Irailaren 11ko zitaren aurretik beste hainbat mobilizazio burutu dituzte; Euskal Herrian ere asteburu honetan egitekoak dira halako batzuk.

alokatu dituzte mobilizazioa osotasunean grabatzeko.

Artur Masek ekitaldia aprobetxatuko du orain arteko bideari segi eta Katalunia nazio bat dela aldarrikatzeko. Baina hortik harago zer? 2013ko urtarrilean Kataluniako Parlamentuak subiranotasun adierazpena onartu zuen, Espainiako auzitegiek gerarazia. Bestalde, Generalitatea neurri ugari hartzen ari da herrialdea “estatu egiturez hornitzeko”. Hala, ogasun katalana sortu du, ordezkartza ugari ireki ditu nazioartean, Gabonetako loteria martxan jarri du, eta autodeterminazio erreferendumearen ostean sortuko liratekeen eszenatoki ezberdinak aztertzeko batzordea ere eratu du.

Uztailean Masek gutuna bidali zion Mariano Rajoy Espainiako presidenteari, 2014ko kontsulta adosteko eskatuz; uda amaieran erantzungo ziola adierazi zion Rajoyk telefonoz. Kataluniako Gobernua zain dago, beraz, ea Espainiaren erantzuna zein izango den, eta horren arabera eman- go ditu hurrengo pausoak.

Erreferendumearen aurrean Espainiak zer egingo ote duen hipotesi ugari zabaldu da: autogobernua bertan behera uztea da aukeretakoa bat, muturreko unionista eta militar zenbaitek armen bidezko esku hartzea iradoki dute, eta bada egoera Balkanekin parekatu duenik. Héctor Lopez Bofill idazle eta irakasleak *Pensar el pitjor* (okerrena pentsatu) artikulua idatzi du *El Punt Avui*-n,

eta bere esanetan Aznarrek 2005ean “Espainiaren balkaniazioa” iragarri zuenean, ez zituen hitz hutsalak esan: “Herritarren borondatearen eta erregimen inposatzailearen arteko kontraesanak, indarkeria erabiltzera eramango du Espainia, historian hainbatetan

gertatu diren hilketak errepikatzeko arriskuak Kataluniako erdi-mailako klaseak kikilduko dituelakoan”. ■



Pobrezia-tasa gora doan arren, aberatsak inoiz baino aberatsago

Pobreziak gora egiten duen bitartean, aberatsak gero eta aberatsagoak dira Frantzian. Desberdintasun sozialen areagotzea agerian utzi duen txostena argitaratu du Gobernuak.

| LANDER ARRETxea |

FRANTZIAKO ESTATUAK inoizko ekoizpen altuena izan du aurtan, 1,9 biloi eurokoa. Haa-tik, 8,6 miloi frantziar bizi dira txirotasun egoeran, hau da, biztanleen %14; Bigarren Mundu Gerraz geroztik, ez da inoiz horrenbesteko pobrezia-rik izan.

Haur, gazte eta etorkinak kaltetuenak

Adinari dagokionez, haur eta gazteak dira nagusiki egoera ekonomiko larrian daudenak. François Hollanden Gobernuak aitortu duenez, “gero eta gazte gehiagok, pobrezia dute behin-betiko etorkizun”. Adin txikikoen %19,6 txirotasun egoeran bizi da; gazteen artean oster, %21,9. Hezkuntzak ere areagotu egiten du pobreziarako joera: urtero 130.000 gaztek uzten dituzte ikasketak bigarren hezkuntza amaitu aurretik.



Frantziako auzo marginaletan kontzentratzen dira pobrezia egoeran dauden gehienak, etorkinak nagusiki. Irudian, Hollande Paris kanpoaldeko Drancy komunara egindako bisitan.

Txostenak nabarmentzen duenez, etorkinak dira diru falta gehien nozitzen dutenak, %40ak hain zuzen. Lana izateak ere ez du oparotasuna ziurtatzen, biztanleria aktiboaren %6,2 txiroa baita. 75

urtetik gorako emakumeen %14,1 ere egoera ekonomiko kaskarrean dago.

Aberatsenak krisirik ez

Biztanleen pobrezia-tasa gorantz doan arren, aberatsenak ez dira inoiz horren dirudun izan. Salim Lamrani Pariseko Descartes Unibertsitateko irakaslearen arabera, diru gehien duten 500 frantziarren aberastasuna 330.000 miloi eurokoa da aurtan, pasa den urtean baino %25 handiagoa. Guztira Frantziako kapitalaren %10 dago haien esku. Dirudun horien artean, 1.000 miloi euro baino gehiago dituzten 55 pertsona daude, iaz baino 10 gehiago. ■





AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Ingelesaren ibilbideari begira

Iraganak euskara jatorrean eta ulergarrian idatzitako administrazio testuak utzi zizkigun. Ondoren, gaztelaniaren distirak itsututa, testu ulertezinak ekoitzi ziren. Azken urteotan, ingelesei begira garatu da herritarrei gauzak esateko beste modu bat, ulergarriagoa, jakina.

| MIEL A. ELUSTONDO |

MUNDU DIGITALIZATUAN herritarrekin hizkera argian komunikatzea helburu, “e-Komunikazioa eta *Plain Language* European. Komunikazio instituzionalaren erronkak mundu digitalizatuan” jardunaldiak egin zituzten Bilboko Euskalduna Jauregian iragan maiatzean. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) eta Administrazio Publikoaren Europar Instituta (EIPA) izan ziren antolatzailerak, eta bateko eta besteko herri-administrazioek hiritarrek harremanetan jartzeko bidez gogoeta egiteko baliatzen zituzten bi egun.

Euskarak arlo horretan egin duen, eta egiteko duen, bidez jardun zuen IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio zerbitzuburu Joseba Lozanok. Komunikazio elektronikoaz jardun zuen Administrazio Hizkera Atalaren arduradun Xabier Amatriak. Lehenengoaren gogoea ekarri dugu orriotara.

Hizkera argia

Lehenik, euskarak iraganean euskal administrazioaren baitan izan duen tradizioaz jardun zuten, eta XIX. mendeko zenbait udal ordenantza –Goizueta, Usurbil eta Tolosakoak, besteak beste–, ekarri zituzten gogora “den-



Joseba Lozano IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio zerbitzuburuak: “1982an garbizaletasunaren alde egin zuen Administrazioak, ehun urte lehenagoko jatortasun eta ulergarritasunaren kaltetan”.

denak euskara jator eta ulergarrian idatzitakoak” zirela esanez. Horrela, 1888ko *Usurbil-ko erriyaren ordenantzak* baliatu zituzten adibide

moduan. Bi puntu baino ez ditugu aldatu hona: “1.- *Legeak agintzen duen moduan kastigatuak izango dira, jendeurrean, arneguzko itzak, jura-mentu gaiztoak, birau edo maldizioak, eta beste edozein itz char esaten dituztenak Jaungoikoaren, Santuen eta Eleizako gauzen kontra. (...) 5.- Prozesioak pasa bear duten kaleak, egongo dira chit ongi garbituak, gichienex Prozesioak pasa bear duen baño ordu betex lenagotik. Ala egiten ez duten bezino guxtiak eranzungo dute bear dan tokian, eta izango dira kastigatuak ordenantz’oek, garbitasunari dagokion buruan, agintzen duten erara”.*

Joseba Lozanok azpimarratu zuenez, garbizaletasuna etorri zen gero, “eta haren eraginez, morfologia eta joskera zurrunagoa, neologismoak eta abar”. Eta, horrela, 1982an, Euskararen Legea onartu zenean, garbizaletasunaren alde egin zuen EAEko Administrazio Publikoak, ehun urte lehenagoko jatortasun eta ulergarritasunaren kaltetan. Arrazoi bila ere abiatu zen Lozano: “Agian ez genuen behar beste ezagutzen tradizio herrikoia; gainera, gaztelaniaz ikasiak ginen, beldur genion maileguz gehiegikeriari, gaztelaniazko testuei aitortzen zitzaizkien zehaztasuna eta

distira euskararako ere nahi genituen”. Horrekin batera, Administrazioak ez zekien nola aurre egin gaztelaniazko dokumentu pilari. Horrela, autonomia abian jarri zuten testuak ekarri zituen adibide Lozanok. “Estatutoak bere 25.1 eta 37.3 Ataletan Kondaira-Lurraldeen onetan legegintza-abalmen horri jartzen dizkion mugak ere Legean agertzen dira, eta Estatutoan Foru-Tradiziozko zat berariz aitortutako gaiak buruzkoak dira. Bainan

bakarreango agintepeko gaiak direla eta Legebiltzarren legezpekoak ez diren aginte alorrak egote horrek ez du Legezko Erresuma izatearen ondorio den erakundegoren-mailako arta egiteko ahalmena baztertzen”.

Joseba Lozanoren arabera horrelakoak ziren euskarazko testu administratibo eta juridiko gehienak orain dela 30 urte. “Garai hartan erabatekoa zen gaztelaniarekiko mendekotasuna eta morrontza. Testu ia guztiak gaztelanitik itzultzen genituen, eta zeresanik ez, erdararen aje guztiak inportatzen genituen nahigabe, berezko euskal diskurtsoa garatuta ez genuelako: esaldi luzeak, nominalizazioak, aposizioak, perifrasiak, egitura pasiboak, inpertsonalak... Horren guztia- ren ondorioz, euskarazko testuak plazaratu egiten genituen bai, hala agintzen zigulako Legeak, baina



Bilboko Euskalduna Jauregian elkartu ziren administrazioak herritarrekiko harremanean nola aritu aztertzeko. Euskarak zein bide jorratu duen ere hizpide izan zuten.

testu horiek ulertezinak izaten ziren gehienetan, eta euskaldunek, baina euskaltzaleen ere, jatorrizko erdal testuetara jotzen zuten sistematiko-ki”. Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioak ez zuen funtzionatzen, ez zen eragin- korra: administrazioa hizkera ego- kitu behar izan zuten, herritarren- gana hurbiltzeko.

Plain English-etik euskara argira

Kinka horretan ari zirela, gaztelan- iatik euskarara itzulitako testu bihurri ulergaitzak plazaratzen urtea joan eta urtea etorri, *Plain English Campaign* izena entzun zuten. Erakunde edo mugimendu bat zen, ingelesezko testu argiak eta ulergarriak aldarrikatzen zituena. “Munduko hizkuntzarik botere- tsuena hausnarketa hartan murgil- duta bazegoen, zertan ari ginen gu

antigoaleko hizkera mordoilo hura oraindik ere erabiltzen?”, esan zuen Lozanok. 1993an *Plain English*eko ardura- dunekin harremanetan jarri ziren, Chrissie eta George Maherrekin, eta informazio guztia eskuratu zieten. “Orduantxe konturatu ginen herritarrei gauzak esateko beste modu bat bazegoela. Administrazioan ere kalitatezko komunikazio argia posible zela. Baina diskurtso berri hori garatu behar genuen eta, garrantzitsuen, zabal- du. Buru-belarri ekin

genion lanari. *Plain English*en irizpi- de nagusietan oinarrituta, IVAPera- ko estilo liburuxka bat prestatu genuen urte hartan bertan, eta urte- bete geroago, 1994an, gure ‘Biblia’: *Hizkera argiaren bidetik*”. Eta liburu hartan egiten zituzten proposame- nek harrera ezin hobea izan zuten. “Herri-administrazio gehienek esti- lo berriaren aldeko hautua egin zuten arian-arian, eta diskurtso berria itzulpenetara ere hedatzen joan zen. Aldaketa ez zen egun batetik bestera gertatu, astiro bai- zik, baina sakon, atzera bueltatzeko bide guztiak itxita”. Eta bidean aurrera, gurean egindako gogoeta besteri jakinarazteko garaia heldu zen. “1995ean Miamira [AEB] joan ginen *Plain English Campaign*nek anto- latutako jardunaldietan gure espe- rientzia kontatzera; hurrengo urtean, guk geuk antolatu genituen



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea



Hizkera administratibo eta juridiko kalitatezkoak lortzeko lagungarri hainbat argitalpen argitaratu ditu IVAPek, hala nola, ezkerreko *Estilo liburua*. Bestalde, *Administrazioa euskaraz* aldizkaria (eskuinean) argitaratzen du.

jardunaldiak Euskadin; eta 1997an, Londresen egon ginen. Estilo berria martxan jartzen ari zen poliki-poliki”. Bestalde, euskararako egiten zituzten proposamenek gaztelanirako ere balio zutela konturatu ziren eta handik atzera beren ekarpenak bi hizkuntza ofizialetera lotzen dituzte.

Eginak eder

Handik hona egindako bidean, eta kalitatezko hizkera administratibo eta juridikoa zabaltzea helburu, hizkera zuzena, ulergarria eta erakargarria izan dute bitartekoa IVAPen. Bateko argitalpenak (*Hizkera argiaren bidetik*, *Argiro*, *Zalantza-dantza*, *IVAPeko estilo-liburua*, *Komunikazio elektronikoa*, *Administrazioa euskaraz* aldizkaria...), besteko dokumentuak estandarizatzea, hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak antolatzea, baliabide informatikoak abiaraztea... “Baina aldaketarik izan bada, hori itzulpengintzan gertatu da. Administrazioan gero eta testu gehiago sortzen dugu euskaraz, baina oraindik ere testu gehienak gaztelanieran itzulpen hutsak dira”. Hala ere, joanak dira garai bateko itzulpen zurrin eta ulergaitzak.

“Asko ikasi dugu. Geure diskurtsoa garatzeko gai izan gara. Eta gainera, urrats berriak emateko gaitasuna izan dugu. Ez hain aspaldi, IVAPek korredakzioaren aldeko apustu sendoa egin zuen. Idazketa elebiduna edo korredakzioa erabilita hizkuntza biak batera erredaktatzen dira, bata ez da bestearen menpeko, eta biek eusten diete euren berezitasunei.

“Munduko hizkuntzarik boteretsuena hausnarketa hartan (Plain English Campaign) murgilduta bazegoen, zertan ari ginen gu antigoaleko hizkera mordoilo hura oraindik ere erabiltzen?”

Joseba Lozano (IVAP)

Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak korredakzioaren aukera eskaini die Jaurlaritzako sail guztiei, eta orain arte, zazpi dekretu eta lege bat idatzi dira teknika hori erabilita”.

Joseba Lozanok dioenez, urte askoan frankotiratzaile jardun dute IVAPen, “berme politikoa sendorik gabe. Baina egoera hori goitik behara aldatu zen 2008. urtean, Eusko Jaurlaritzak Euskaren Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldia

onartu zuenean. Bertan, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau orokorrak finkatu zituzten, eta kalitatezko komunikazioa bera ere definitzera heldu ziren, hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak dira helburu. “Plangintzaldi haren 4. kapituluak honela dio: ‘Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik. Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoka, lege-aipamenak oinohar modura... Testuak zuzena izan behar du. Hizkuntza bakoitzak badu bere

esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioa hizkera berri, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago. Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko”. Horretarako bidea ere zehazten zuen delako plangintzaldiak, 7. kapituluak. “Informazioa komunikatzea da Eusko Jaurlaritzaren zeregina, bi hizkuntza-komunitatei komunikatzea, alegia; eta horretarako ez dago itzulpenen beharrik: nahikoa da zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortu eta ematea, betiere edukia errespetatuz, baina estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta (...) Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko ditu, korredakzioak arian-arian bere tokia izan dezan sail guztietan”.


Horretan da Joseba Lozano. Lan batzuk egin dituzte, egiteko berriak sortu dira, komunikatzeko moduak ikaragarri aldatu baitira joan deneko 30 urte honetan. “Paper bidezko komunikaziotik plataforma digitaletara pasatzen ari gara abiadura handiz, eta horrek geure burua etengabe egokitzea behartzen gaitu”. Eta, hor ere ez da izango hizkera argia beste biderik. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



JEAN HARITSCHELHAR

Euskalduna sortzez, frantsesa legez, europarra ametsez

1986an, ARGIAN egindako elkarrizketan hala aurkeztu zuen Josu Landak Haritschelhar:

“Ipar Euskal Herriko aferetan sartuz gero, beti ateratzen da nondik edo handik Haritxelharren izena. Kultur munduan, batik bat, ezinbesteko erreferentzia da”. Baigorriko auzapez, Bordeleko Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedradun, Baionako Euskal Museoko buru, eta 1989tik 2004ra euskaltzainburu. Baigorri (Nafarroa Beherea) jaio zen 1923an eta 90 urterekin hil da irailaren 1ean.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



1995ean, Mitterranden 14 urteko lehendakaritaz gogoeta egiteko eskatu zion Jojo Bidartek: “Euskal departamenduaren aldeko elkartearen sortzailetarik nintzen eta ez diot sekula barkatuko Mitterrandi euskal departamenduaren proposamena ez atxikitzea”.

ONDORENGO LERROOTAN ARGIA astekarian Haritschelharri egindako hainbat elkarrizketetako pasarteak bildu ditugu.

Errialde, 1975-11-09

Errialdek galdetu dio ea nolako Ipar Euskal Herria nahi duen; eder,

baina lanik gabe, ala industriaren ke piska batekin: “Keak bizia salatzen du ez baita kerik supazterrik gabe. Berdintsu da industriarentzat. Ke piska batek bizia eman lezaguke. Bada ere industri garbia eta lantegi garbi horien behar gorria badugu Ipar Euskal Herrian, egon daitezen

gure gazteak bereziki mendi aldeko herrietan”.

Josu Landa, 1986-10-19

“Bretoinekin ez daukan beldurra dauka [Frantziako Gobernuak] euskaldunei buruz, bai, eta bereziki Euskadiko komunitate autonomoarekiko, Hegoaldearekiko.

Eman dezagun errefuxiatuen gaia dela, arrantzarena... eta hor agertzen da. Orokorki hartuta, Espainia eta Frantziaren arteko borrokak euskaldunen bitartez izan dira; eta nik uste frantses gobernuak ez duela besterik ikusten. Horretan ostrukaren politika egiten ari direla”.

Joxan Oiz, 1989-01-08

Kazetariak galdetu dio ea norekin kokatuko lukeen bere burua politikan: EMArekin, EBrekin, EArekin, ‘Ager’ ingurukoekin... “Ez batekin ez bertzeekin, ni beti independente izana naiz, nire libertatea nahi dut atxiki bai baitakit alderdi batean sartzen zarelarik galtzen duzula zure libertatea.

Igal zait zer pentsatzen duten bertzeek, nik nere bidea eta nere lana jarraitzen dut; eta pentsatzen dut lan horretan zerbait egin dadala. Uste dut ere bai, hor badagoela

bereziki hor horrelako eten bat: edo abertzale edo espainolista, hori egia ote da beti? nabardura pixka bat behar da. Hori da alderdikari izaittea, eta neri alderdikari izaitzea ez zait gustatzen”.

Batuaren eta euskalkien arteko tenkaz itauna eginda: “Nik ez dut uste horrelako borrokarik dagoenik, batzuk sortzen dutela uste dut. Nik ez nezake enplea euskera batua, nik enplea nezake euskara baturantz euskera batua ez baita oraindik egina, proposamen batzu dira. Sekulan Euskaltzaindiak ez ditu arbuiatu euskalkiak, hortaz oinarritzen da, eta batzuk erraiten baldin badute, eta erran dute, Euskaltzaindia euskalkien kontra zela: nik diot gezurra diotela. Hor ikusi behar da norentzat idazten dugun: nahi baldin badugu osoki irakurtuak izan, orduan baturantz, beti emeki-emeki. Zeren eta, orostean esaten nuena da hizkuntza batekin ez dela jostatzen eta bakoitzak badu bere egite hori bere euskalkian, euskaldunduaz eta irakurritz. Hor ikusi behar dena da harremanetan sartu behar dela beti, elkar ulertzeko bizi-

ki untsa. Frankofonia onartzen baldin bada, zergatik ez dugu euskoronia onartzen?. Euskara hizkuntza bat da, baina euskalki horiek bada-kigu ez direla hizkuntzak”.

Elebitasunari eta elebakartasunari buruzko gogoeta: “Behin elebitasunari buruzko mintzaldi batetan

“Euskaldundu behar dira Euskalerrian bizi diren guztiak. Utopia? beharbada, baina emeki-emeki...”

hauxe bota nuen: Oraiko egunean oso pobre eta erromes da hizkuntza bat bakarrik menderatzen duen gizona edo emaztea. Elebitasuna beharrezkoa da. Nik Euskalerrian pentsatzen dut 3 hizkuntzen jabe izan behar dugula, eta horretan lehena euskara, gero bigarrena, adosean usten ditut, espainola edo frantsesa. Neronek ezagutzen ditut

hirurak, eta maite dut espainola (Cervantes, Lope, ...), eta maite dut frantsesa (Molière, Comeille, ...). Euskaldundu behar dira Euskalerrian bizi diren guztiak. Utopia? beharbada, baina emeki-emeki... Proposatzen dut elebitasuna, ez diglosia. Euskarari norberak eman behar dio bultzada bat, beharrezkoa baita, legea ez da aski, erran nahi baita, lege hori behar dela bete. Nola bete? ba euskaldunek lehen-dabizi beteaz. Denda batekoak ez baldin badaki euskaraz? beno, baina administrazioaren aurrean: ‘*es que no se*’ bat jaso, orduan ‘ekarri dakien bat’ eskatu. Hori egun guzietako lana”.

Jojo Bidart, 1995-IV-30

Herria astekarian Gexan Pontto ezizenez idazten segituko duen galde-tuta: “Dudarik gabe. ‘Herria’ kazetan segitzen dut, umorea baliatuz eta ondoko lelo hau gogotan atxikiz: ‘Ankrea dut beltza, baina ez dut nehor beltzatzen; luma dut xorrotza, baina ez dut nehor zauritzen”. ■



EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

AHTren biktimak

TAMALEZ, inposatu diguten Abiadura Handiko Trenaren makroproiektua kalte ekologiko, ekonomiko eta politikoaz gain, giza biktima ugari eragiten ari da. Egunotan bi gertakarik berriz mahairatu dute proiektu faraoniko eta antisozialaren zentzugabekeria: Bergarako obretan lanean ari zen pertsona baten heriotza eta proiektu honen kontra egin diren mobilizazioak. Jadanik zazpi dira 2008tik obra horietan lan istripuen ondorioz hil diren langileak. Immigranteak eta azpikontratatuak, giza biktimak dira, prekarietatearen biktima eta baita proiektu horren arduradun diren erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Espainiako eta Frantziako gobernuak) onartu behar ez lituzketen lan baldintza kaskarregeen biktima ere.

AHTk beste biktima batzuk ere baditu. Euren ingurua eta bizilekua nola galdu den ikusi duten familiak —etxeak eta lurrak barne—; halako galera konponezina ordain merke eta lotsagarrien truke izan da

gainera. Ingurune naturala deuseztatu dieten herriak ere biktima dira. Dirurik ez dagoela eta, eskubide sozial eta laboralak murriztu dizkieten eta ongizatea suntsitu dieten langile eta herritarrak ere bai. Izan ere, dirurik ez dago, baina milioika euro xahutzen dira Lemoiz berri bat izatera kondenaturik dagoen obra bat egiteko. Lakuako gobernuak presa dauka trenbidea eraikitzeke, baina horretarako 1.400 milioi euroko zorra egin du Europako Inbertsio Bankuarekin. Azken batean, euskal herritarrak biktimak dira, ez baitaie sekula galdetu obra faraoniko hau aurrera ateratzea nahi ote duten.

Orain zaila da biktima horiei egindako kaltea konpontzea. Hasteko, obren luzamendua iragarri dezate-la, eta hurrengo pausoa izan daiteke geltokirik ez duen trena betiko geraraztea.



Juan Mari Arregi

Fukushimari zesioa tankeka dario eta egia tantaka

Abuztua baliatu dute TEPCO konpainiako buruek aitortzeko Fukushima, 7. mailako hondamendi nuklearra gertatu ostean, 3. mailako istripua ari dela gertatzen. Hasieratik isurtzen du ur kutsatua itsasora Fukushimak. Datu berri nagusia da enpresak bezala Tokioko gobernuak aitortu dutela egoera kontrolatu ezina.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZERTAN IZAN DA EZBERDINA UDA honetan Japoniatik zabalduetako albisteak, alegia milaka tona ur kutsatu, Fukushimako erreaktore matxuratuak hozteko usatu ostean tanke erraldoietan pilatuak, itsasora joan direla aitortu izana?

Batere antinuklearra ez den *The Wall Street Journal* egunkarian Moeko Fujii eta Phred Dvorakek honela laburbildu dute: "Oraingotan, lehenbiziko aldiz, konpainiak dio ez dakiela ur hori nondik ateraden". Kontrol faltaren aitortza izan da berria.

Maiatzetik baitzebiltzan ikertzen zergatik itsasbazterrean egindako zuloetan abendutik 17z biderkatu zen tritio maila. Uztail hasierarako %20 gehiagoz handitu zen. Berdin zesioa eta beste gai erradiatiodunak. Zergatik, ur kutsatuak ondo biltzen ari baziren?

TEPCOren eta Tokioko gobernuaren komunikazio kabineteen estrategiari jarraiki mugitzen diren gure hedabide nagusiek Fukushimako krisiaren inguruan hedatzen duten lainotan ez galtzekotan, bi urte eta erdiotan sinesgarritasuna erakutsi duten hedabide alternatiboetara jo beste biderik ez da. Harrigarria da zein gutxi ikuskatzen dituzten kazetariak *The Fukushima Project-SimplyInfo* bezalakoak, hain eskueran egonik.

Berrikitan honek helbide berria hartu du: *Fukuleaks*. Ezin izen hoberik aukeratu errudunek ezkutatutahi dituzten jario erradiaktiboak argitara atera nahi dituen blog batentzako. Taldean egina, Fukushimakoaz batean eta bestean azaldu-tako analisi interesgarrien bilduma egiten du, ikerlanak ere eskainiz. Laburbildu dezagun *Fukuleaks*ek plazaratu berri duen *How Fukushima leaks*: nolakoak dira Fukushima-aren jarioak? Bost motatakoak.

Hasteko, etenik gabeko isuria. Zentralaren lurpean doan ibaiak egunean 1.000 tona ur darama, zeinetatik 400 ateratzen diren erreaktoreak hozteko, gainerako 600ak ere hein batean kutsatuz. Inguruko itsasoa ikertzen ari diren zientzialariek ihes horri egozten diote parajeotako arrainetan hautemandako zesioa. Istripuaren hasieratik dirau eguneroko kutsaketak. Zundaketa bidez ikusi da lurpeko uren maila igo eta jaisten dela marearekin batera; bat eginik daude, beraz, lehorreko eta itsasoko urak.

Bigarrenik, zentralaren tunel eta eraikinetan pilaturiko urak. TEPCOk aitortu du badirela kableentzako hodiak ur oso kutsatuz beteak oraindik butxatu gaberik. Hodiotan baino askoz ur gehiago dago erreaktoreen eraikinetan, matxuratutako *eltze handiak* hozte-

Fukushimako zentralak *Kyodo Newseko* argazkian airetik irudi hau eskaintzen zuen abuztuaren 20an. Ur bazterrean ageri dira ezkerretik eskuinera hiru erreaktore leher-tuak, eta laugarrena, erregai usatua altueran kokatutako piszina daukana. Irudiaren erditik behe eta eskuin aldera ikusten dira turbi-na matxuratuak hozten erabilitako ur erra-diazioduna metatzen duten tanke handiak. Horietako batek nozitu zuen ihesirik handie-na eta txikiagoko gehiago. Adituen ustez, hala ere, arriskurik handiena lur eremu horren zorupean datza, erradioaktibitatez pozoitutako milaka tona ur erremediorik gabe doazelako itsasora bidean. *BBC* katearen ingurumen arduradun Matt McGrath-ek titulu hau paratu dio abuztuaren 22ko kroni-kari: "*Fukushima leak is much worse than we were led to believe*"; alegia, Fukushima-ko isuria askoz okerragoa dela sinetsarazi digutena baino.

ko erabili direnak. Teorian horiek hormigoi artean daude preso, baina *Fukuleaks*seko boluntarioek argitaratu dituzte Fukushimako eraikinen planoak, zeinetan ageri baitira 590 zulo lurpeko uraren mailaren azpian daudenak; horiei gehitu turbinen osagaiek eduki behar dituzten arrakala.

Hirugarren isurbidea, agerikoe-na: zentralaren milaka metro koa-droetan eroritako urak biltzen dituzten estoldak zuzenean doaz itsasora, inolako iragazkirik gabe.

Inori entzun diozu 'corium'?

Uda honetan TEPCOk aitortu duen 300 tonako isuriari dagokio *Fukuleaks*sen zerrendako laugarren kutsadura iturria: tankeen akatsak. Konpainiak ezarritako tankeak diseinaturik daude aurrez ALPS irazki sistemaz erradiazioa gutxitu zaion ura pilatzeko, baina leku fal-taz, horietan batere filtratu gabeko ur kutsatuak bota zituen. Kontua da orain arte galdu duten ur erradiakti-boaz haratago, bost urteko bizia kalkulatu zaien tankeok gutxiago iraungo dutela osorik, esandako erabilera okerragatik.

Bosgarren isuria, eta ziurrenik nagusia, osatzen du zentralaren zorupean metatutako ur kutsatu masa handiak. TEPCOk berak abuztuan onartu du erreaktoreen



Fukushimako hiru erreaktoreen nukleo urtuek inguruko guztia suntsitu dutela: “Han badago leku bat inor iritsi ezin dena. (...) Egoera izugarri zaila da, ez dago mirarizko soluziorik. Kutsadura hori guztia, iristeko modurik ez dagoen nukleo hondatu horiek...”.

Etxabarrrik ez bezala *Fukuleak*sek aipatzen du hitz madarikatua: coriuma. Coriuma sortzen da istripu nuklearretan, erreaktoreen mui-
nean —*core* ingelesez— elkarrekin nahastuta urtzen direnean erregaia dauzkan uranioa eta plutonioa, eta erreaktore barruan ipinitako gainerako gaiak: zirkonioa eta bestelako aleazioak, erregaiei eusteko barra eta beste mekanismoak, erreaktorearen ontzia eginik dagoen altzairua bera, errefrijerazioko hoditeria, eta abar.

Naturan existitzen ez den gai berri hau oso ahalmen handikoa, toxikoa, erradioaktiboa, beroa, trinkoa eta korrosiboa da. Baina non dago Fukushimako hiru erreaktoreetan sortu den coriuma? Inork ez dizu esango. Hasteko, hitza bera tabu delako industria nuklearren-
tzako. Bigarrenik, inor ezin delako jakiteko adina hurbildu.

TEPCOk aipatu duen aldi bakanetan esan du erreaktoreen azpian egon behar duela coriumak. Aldiz, *Fukuleak*sek aztertutako dokumentuen arabera, Txernobylen ikusi zen masa gori hori alboka ere lekualdatu daitekeela. Fukushimako corium izenda ezinak, hozteko premian jaurtikitako urarekin erreadioaktibitateak itsasoratzen darrai. ■



azpiko ur pila handi hori mugitzen ari dela itsasorantz. Hau kasik ez dute aipatzen hedabide nagusiek 300 tona famatuekin itsututa, baina ez, zorupeko putzu honek bestelako garrantzia izango du aditu batzuek uste duten moduan laster itsasora iristen denean.

“Ketzka horri gehitu behar zaio —bukatzen du sintesia *Fukuleak*sek— TEPCOk ez dakiela edo ez duela esaten non dagoen hiru erreaktore matxuratuetoako erregai urtua. Horra ezagutzen ez dugun faktore izugarria: ea urtutako erregai horretatik zenbat nahastu den lurpeko ur masarekin. Ezagutzen da 1 eta 3 erreaktoreen azpiko ura oso erradioaktiboa dela, baina 2 erreaktorearen eraikina oraindik ez da anali-

zatu, erradiaziorik txikieneko guneetan ere arriskutsuegia zelako harantz langilerik bidaltzeko”.

Hau ez dio *Fukuleak*sek bakarrik Abuztuaren 23an *El País* egunkariak elkarriketatu zuen Luis Etxabarrri OCDEko agentzia nuklearren zuzendari bilbotarra. “*Fukushima no dejará de ser un peligro hasta dentro de varios años*” titulua darama elkarriketak, kazetariak sarreran dion arren lasaitasuna zabaltu nahi duela hango larrialdia-
ren inguruan.

Etxabarrrik aitortzen ditu gauza garrantzitsuak: egoera oso zaila dela, 30 edo 40 urte beharko direla zentrala eraisteko, ur kutsatua iristen ari dela itsasora, egoera oraindik ez dagoela kontrolaturik... eta





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Nagusitasun militarra, ekonomikoaren ate

GERRARIK EZ! dio berriz ere mendebaldeko haizeak Barack Obamak Siriari eraso egingo diola iragarri duenean. Orduetako kontua edo egunetakoa izan daiteke, baina eraso segurtatua dago, lehenago Afganistan, Irak edo Libian bezala. Gerrarik ez, aurretik bakea balego moduan, Siriako gerra zibilak –datu erabat argirik ez badago ere– dagoeneko 100.000 lagun irentsi ez balitu moduan. Gerrarik ez, baina han gerran dira aspaldi.

Nazio Batuen Erakundearen baimenik gabe ekingo zaio erasoari, Siriako agintariek arma kimikoak erabili izana zigortzeko. Baxar al-Assadek arma horiek erabili dituen ala ez –badira matxinoak izan direla dioen ahotsik– ez da garrantzitsuen gerra xake hone-tan; eta gainera, ez dirudi hark arazo handirik izango zukeenik hauek erabiltzeko, ez bere herritarren aurka, ezta ere, gerra orokortzen bada eta azken defentsa-erabaki larrian, beste estatu batzuen aurka, izan Turkia, Israel edo Saudi Arabia. Eta gerra barreiatzeko aukera egiazkoa da. Akaso hori bilatzen da, hurrengo urrats batean AEBen benetako helburuaren aurka egiteko: Iran. Inork ezin du jakin, hiruzpalau urtera zer gerta litekeen, baina Irak eta Libiaren petrolio kontrolpean izanda, Iranekoaren kontrolak garrantzi berezia du AEBrentzat eta Mendebaldeko interes ekonomikoentzat. Siria kontrolatzea horretarako beste urrats bat da.

Oraindik ere Ekialde Erdiko petrolio kabea da AEBrentzat epe motzean, eta ertainean ere hala izango da, eta beraz, eremu hori kontrolpean izatea lehentasu-



nezkoa. Baina denak adierazten du epe ertain eta luzera, AEB Asiako ekialdera ari dela begira: India, Txina, Japonia, Asiako tigreak...

2011ko azaroan, “Iparramerikako mendea Itsas Barean” izeneko artikuluan, Hillary Clintonek argi azaltzen zuen haien begirada estrategikoa non zegoen, “eta orduan, AEBak jarduera horren erdigunean izango dira”. Ez Iraken, ez Afganistanen, Asiako ekialdean baizik. Eta Josep Fontanak *El futuro es un país extraño* liburuan azaltzen duenez, horrek esan nahi du AEBek utzi egingo dutela “terrorearen aurkako gerraren” aitzakia, eta berriz ere, konplexu barik helduko diola bere betiko politikari, nagusitasun politiko eta militarri, ondoren nagusitasun ekonomikoa erdiesteko.

Fontanarena irakurketa bat da, zalantza barik, baina oso kualifikatua. Bide horretan, datozen urteetan behintzat AEBek eta beren aliatuek nagusitasun osoa behar dute Ekialde Hurbil eta Erdikoan. Siria ez dela Libia aipatu izan da, estatuak han beste batasun eta indar bat duela, baina bistan da AEBek eta beren aliatuek hala erabaki badute, Baxar al-Assaden erregimenak jai duela dagoeneko. Eta ondoren zer? Hori beste kontu bat da, baina Afganistan eta

Irakeko ispilueta, kaosa ikusten da Siriaren etorkizunerako. Itzela, baina hori da eszenatoki posibleenetakoa. Gaitza da irudikatzea Obamak erasoari ekitea eta ondoren, 1991n Bush aitak Iraken Saddam Husseinekin egin zuen bezala, Baxar al-Assad bere tronuan uztea.

Bestetik, badira arrazoiak pentsatzeko Siriakoak zer-bait azkarra izan behar


duela eta kaosa sortzen bada ere, amerikarrak ez direla lurteko inbasioetan sartuko, hori gehiago izango dela oposizio sakabanatuaren kontua. Gobernua baten edo bestearen esku egon, suniten eta xihiten beste gerra luze eta odoltsu bat irekitzeaz da begien aurrean. Eta zeintzuk dira arrazoiak? Batez ere ekonomikoak: Irakeko abenturak 4 bilioi dolarreko kostua ekarri die iparramerikarrei (Espainaren urteko BPGaren lau halako). Horrez gain, Iraketik atera dira baina 2014 abendura arte ez dira aterako Afganistandik.

Europar Erresuma Batua gerrari oztopoak jartzen ari da eta Frantzia AEBen eskutik txintxo-txintxo. AEBen aliatu historikoak ezetz esan dio oraingoz eta Europako aliatuen ardi beltz historikoa prest du berriz ekintzarako. Baina ez da harritzekoa, kontuan hartuz, Philippe Leymariek bere blogean (*Défense en ligne*, les blogs de Diplo) dioen moduan, Frantzia urtero gerra batean sartu bada 2008tik gaurdaino: 2008an Txad, 2009an Afganistan, 2010ean Boli Kosta, 2011n Libia, 2012an Mali eta orain Siria. Atzerrira begira bederen, berdintsu Mitterrand, Chirac, Sarkozy edo Hollande. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia




Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1

Iruñeko Planetarioa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Donostiako Aquariuma



4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Ekainberri

Ekain berri




3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

4

Ertzeko zatiak



Jon Sarasua

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2378. Argia)

BESARO Landa Hotela

- Orexako udal Liburutegia (Orexa)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Arturo Campion Kultur Elkarte (Iruñea)
- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

EKAINBERRI

- Andone Barandiaran Arratibel (Pasaia)
- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Amara Berri AEK Euskaltegia (Donostia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrakundiaga)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)

ARGIA kamiseta

- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com